


GEHIGARRI  
BEREZIA



HEZKUNTZA  
AIARALDEAN

### Amurrio

12.600.000  
aurrekontua  
onartu dute Udal  
Osoko Bilkuran 3. or.



### Laudio

"Akordio historikoa"  
lortu dute EAJ eta  
EH Bilduk proiektu  
askotarako 3. or.



### Iritziak:

**NORBERTO  
ALDAITURRIAGA** 2. or.  
IRITZI  
GUTUNAK 2. or.  
**KOLDO  
GILSANZ** 7. or.  
MIKEL  
AYLLON 10.or  
**ITZIAR  
URKIJO** 16. or



**aiaraldea** **eus**

Aiaraldeko  
hamabostekaria  
2016 /// Maiatzak 2 ///  
ASTELEHENA  
51. zenbakia ///  
Doan ///  
[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)

## Larruazabalgo batzarrak 500 urte bete ditu



\_elkarrizketa

**ANTONIO ALDAMA TEJADA**

"Margolaritza dena da  
niretzat, dena  
eman dit"  
10 or.



**ERDITZEA:** Gaur egun ospitaletan jaiotzen dira haur gehienak, baina badaude erditzea etxean bizitzeko hautua egiten duten emakumeak ere 8-9 or.



# Gora Otxomaioak!

MAIATZAREN 6tik 15era

## Etorri eta gozatu!



**OTXOMAIO 2016**  
URDUÑA JAIETAN



f urduñako udala

@urduñakoudala

+info: urduna.com



# \_iritzia



**Norberto**  
Aldaiturriaga  
LEGE BILTZARKIDEA

## \_Leihotik

### Kontzertu ekonomikoa (II)

**H**irugarren Gerra Karlistak baino lehen, batzar orokorrek eta foru aldundiek jasotzen zituzten zergak. 1876an gerra amaituta, eta Madrilgo gobernuarekin elkarrizketa askoren ondoren, akordio batera iritsi ziren. Ondorioz, Euskal Lurraldeek, denbora jakin batez, modu berezian ordainduko zituzten zergak: diputazio probintzial berriek jasoko zituzten kontzertatutako zergak (adostasun edo kontzertupekoak), eta Estatuko Ogasunari ordainduko zizkiten, azken honen jasotzea espero zuen pareko kantitatean. Jasotakoaren eta Estatuari ordaindutakoaren arteko diferentzia euskaldunontzat gordetako gure genuen. Hori izan da ordutik hona, gorabehera historiko batzuk aparte, gure burua gobernatzeko sistema.

Modu horretan, Estatuak ez du bere gain hartzen zergak jasotzeko modua, lan desatsegin hori euskal erakundeen esku utziz. Horiek dira herritarrei zerga-kargu bat ezartzeko erabakia hartu behar dutenak. Zenbat jaso gure ardura da erabat, eta ondorioz, mekanismo horren arriskuak gure gain hartzen ditugu.

Euskadiko zergak ezar ditzakegu, baina ordainetan, gure ardura da jasotakoarekin herria finantzatzea. Horrekin ez baldin bada nahikoa guk nahi ditugun zerbitzuak mantentzeko (hezkuntza, osasuna, errepideak eta abar), eta Estatuari zerbitzu komunak ordaintzeko (Errege Etxea, Ejerzitoa, TVE eta abar), ez daukagu inori laguntza eskatzerik. Euskadi eta euskaldunok galdu-gordean jardunda daukagu Kontzertua. Edonork uler dezakeen moduan, Kontzertu Ekonomikoa pribilegio batekin parekatzea gezur handi bat baino ez da.



**Oscar**  
Metalgintzako langilea

Niri ez dit eragiten, ez bainintzen joaten ikuskizun horietara. Baina egongo da herriko sektore bat minduta sentituko dena, gutxiengo dela uste dudana. Garrantzitsua iruditzen zait zezenketak mentalitate ez izatea instituzioek dekretu bidez ezartzen duten zerbait.



**Olga**  
Administraria

Ni ez naiz ez zezenketetara ez mota horretako beste ikuskizunetara joaten. Horregatik, ondo iruditzen zait zekorketak kendu izana. Nahiago dut mota horretako ekitaldiak ez egitea. Nahiago nuke herriko jaiei begira bestelako proposamen batzuk egotea.

# ?

## \_GALDERA

Amurrioko Udalak zekorketak kendu dituzte jaien egitarautik. Zer deritzozu?

**BIDEOA WEB GUNEAN**

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



**Alberto**  
Administraria

Ikuskizunak publiko bati zuzendutakoak egon behar dira. Publikorik ez badago, ez dago ikuskizunik. Niri pertsonalki ez zaizkit zezenketak gustatzen, baina gustuko dituen jendea baldin badago errespetatu egiten dut. Zezenak gustuko ditut nik, ez zezenekin egiten den ikuskizuna.



**Inma**  
Etxeko langilea

Ez dut uste udalek edo instituzioek kendu behar dituztenik, euren kabuz eroriko dira. Murrizketak daude gainontzeko elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzetan, eta hemen ere egon behar direla uste dut. Horrelako ikuskizunak ikusi nahi dituenak bere poltsikotik jar dezala dirua.



**Josune**  
Ikaslea

Oso ondo iruditzen zait zezenketak jaietatik kendu izana. Mota horretako ikuskizunak ez zaizkit batere gustatzen, eta ez nago egitearen alde. Animalientzako txarra dela deritzot, tortura dela. Txarto pasatzen dute, eta ez da bidezkoa halakorik egitea.

# \_gutunak

## 50 urte ospatzeko Urduñako Antzinako Andra Marin

Susana Harillo (Antzinako Andra Mari Ikastetxea)

**A**urten Antzinako Andra Mariaren ikastetxeak 50. urteurrena ospatzen du. Josefino de Murialdo kongregazioak mende erdi bat darama Urduñan, "Txefos" esaten diogun ikastetxean. Urte hauetan zehar belaunaldi pilo bat pasatu dira ikastetxeko geletatik.

Aurten, eta hori ospatzeko asmoz, ekintza ugari egingo eta egin dira, bai ikastetxearen barruan eta baita kanpoan ere. Gainera, ekintza edo ekitaldi horiek hainbat arloekin daukate zerikusia.

Kirol arloan, besteak beste, txirrindularitzan, Muriasko Taldearekin egun osoa pasatu genuen, eta haien ahalegin eta ametsen berri jaso genuen. Nesken txirrindularitza talde bat ere etorriko zaigu, gainera. Saskibaloian, Bilbao Basket Taldearekin eta Baskoniarekin egoteko aukera izango dugu. Eta esku-pilotan, Mikel Urrutikoetxea pilotaria ikastetxera hurbilduko zaigu.

Arlo kulturallean, musika eta hitzaldiak izango dira ekintza nagusia. Kontzertuen aldetik, Diego Martín zuzendariaren emanaldi didaktiko batez gozatu genuen, eta Judit Jauregi piano-jotzailearekin datorren urrian gozatu ahal izango dugu. Julen Oyarzabal eta beste hizlari batzuk ere izango ditugu. "Oroimena zergatik galtzen dugun eta

nola mantendu dezakegun" azalduko digute. Ildo horretan, Tomás Ortizek, Complutensean lan egiten duen adituak, burmuinaren garapenari buruzko informazioa helaraziko digu, eta ikasketetan nola aplikatu daitezkeen jakinaraziko digu.

Enpresa munduarekin eta prestakuntzarekin zerikusia daukan arloan, debateak edo mintegiak antolatuko dira.

Zinemak leku berezi bat izango du ospakizun honetan. Urrian, Euskadin egin diren azken filmak ikusteko aukera izango dugu, *Amama* eta *Loreak* bezalako pelikulekin. Argazki eta margo erakusketak ere egingo dira. Urduñan dauden argazkilarik zein margolari ospetsu batzuen lana ezagutarazi nahi dugu. Askotan gure ondoan ditugu talentuak, baina ez ditugu merezi duten bezala ezagutzen.

Eta jakina, ikastetxetik urte hauetan guztietan zehar pasatu diren pertsonekin bilduko garenez, jai izugarri bat prestatzen ari gara. Ekainaren 11n egingo dugu. Egun horretan, goizeko hamarretatik aurrera, hainbat ekintza izango ditugu: kontzertuak, erakusketak eta bazkari bat, besteak beste.

Ekintza guztiak ikastetxeak antolatu dituen arren, pertsona guztiei irekiak izango dira.

### Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

### Tirada:

10.000 ale.

### Maiztasuna:

Hamabostekaria

### Lege gordailua:

BI-1230-2013

### Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

### Publizitatea:

publizitatea@komunika.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

### Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

### Helbidea:

Nerbioi Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

### Telefonoak:

Tel.: 94 656 85 54/688 62 59 00

### ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

### Egunkari hau laguntzen dute:

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**Graf!k Koop.**  
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)  
94 672 65 43  
info@grafiksarea.com

**JEZ Sistemas Ferroviarios**  
Arantzaz, z/g · LAUDIO (Araba)  
Tel.: 946 721 200 // info@jez.es

**ausolan**  
Uribarri etorbidea 35  
20500 Arrasate  
ausolan@ausolan.com

**BASALARRINA**  
euskal TOPAGUNEA



# \_herriz herri

## Laudio

### “Akordio historikoa” lortu dute EH Bilduk eta EAJk plan estrategikoetarako



Agerpen publikoa egin zuten alderdiek. Argazkia: aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Laudiokobiudal taldegarrantzitsuenek akordioa lortu dute hainbat proiektu gauzatzeko. Besteak beste, Antzokia Altzarraten egiteko eta liburutegi berria Zubiko Etxera eramateko adostasuna lortu dute.

EAJ eta EH Bildu alderdiek “erakundeakordioa” gauzatu dute Laudioko hainbat proiektu estrategiko erdiesteko; indarrean dagoen legealdian eta etorkizunean. Horrek esan nahi du aurtengo aurrekontuen zirriborroa elkarrekin landu ez ezik, asmoa daukatela beste erakundeetan (Arabako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan, esate baterako) jarrera bateratua erakusteko.

Akordioaren ikurra Antzokia da. Bi alderdiek azaldu dute Altzarraten proiektua eraikitzekeko urratsak emango dituztela herriarren nahiak entzun ostean.

Biek nabarmendu dute kokapen horrek betetzen duela laudioarrek eskatutakoa: 400 pertsona baino gehiagorentzako lekua, herrigunean egotea (270 metro daude Herriko Plazatik eta aparkalekuak eta tren geltokia alboan ditu) eta udalak ordaintzeko aukera izatea.

#### 220.000 euro Antzokirako

Berez, aurtengo aurrekontuen zirriborroan 220.000 euro bideratu dituzte proiektua idazteko, aurreko ideiak ez baitu balio (15 milioi eurokoa zen).

Juanma Ibarretxe EAJko zinegotziak ziurtatu du legealdia bukatu baino lehen Antzokia eginda egongo dela, baita “nahiko aurrerata” ere, proiektuainorkbertan beherautz ez dezan. Egitasmo horri lotuta daude Zubiko Kurajon eta

Latierron egin diren eta gauzatu diren zenbait inbertsio (geltokiko tunela, adibidez). Esanguratsuen Laudioko liburutegi berriaren izango da; Zubiko Etxera eraman nahi baitute egungo zerbitzua modernizatzeko; ikasgelak egiteko, teknologia berriei garrantzia emateko, adinen arabera banaketa zehazteko...

Printzipioz, 22.000 euro gastatuko dituzte eraikineren irisgarritasuna hobetzeko eta barrutik egokitzeko. Horrez gain, Zubiko Etxeko parkearen inguruak urbanizatzeko eta erreformatzeko ere 280.000 euro bideratuko dituzte.

Gainera, 2016-2017 Foru Plana dela eta, Jose Matía-Zubiko Kurajo kaleetako saneamendu eta urbanizazio lanak erdietsiko dituzte eta aurrean 594.000 euroko inbertsioa beteko dute.

#### 3.280.000 euroko inbertsioak

2016ko udal aurrekontua 23.325.939 eurokoa da eta 3.280.000 euroko inbertsioa egikaritu nahi dute EAJk eta EH Bilduk. Aurrekoaz gain, hurrengoak izango dira inbertsio nagusiak. Ellakuriko futbol zelaian belar artifiziala jarriko dute futbol talde guztiek erabili dezaten. Horretarako 600.000 euro erabiliko dituzte.

Ugarteko errepedea asfaltatzeko 380.000 euro gastatuko dituzte eta enplegua sustatzeko planetan 290.000 euro.

Irisgarritasun planarekin jarraituko dute Arrañon (200.000 euro) eta Padel pistak eraikiko dituzte Gardean (185.000 euro).

Gainera, %15 igoko diete diru-laguntza herriko kultur eta kirol taldeei.

## Artziniega

### Artziniega eta Guardia hiribilduek turismo ibilbide komuna abiatu dute

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Aiarako eta Arabar Errioxako Koadrilako turismo arloek eta Arabako Foru Aldundiak euren indarrak batu dituzte bisitari gehiago eskuratzeko. Horretarako, ibilbide berezia prestatu dute; Artziniega eta Guardia lotuko duena, hain zuzen.

Bi hiribilduak dira Arabako iparraldean eta hegoaldean dauden azken herriak, eta nahiz eta 100

kilometro baino gehiagoko tartea egon euren artean, ezaugarri eta kultura komunak dituzte: Erdi Aroko ondare historiko ugaria eta zaindua eta ardo aparta.

Bertute horiek aintzat hartuta, ibilbide turistikoak garatu dute Arabako aniztasuna goraiatzeko.

Izan ere, proposamenak para-da emango du Gasteiz, Trebiñu

edo Añanako zenbait eraikin eta leku ezagutzeko.

#### Artziniegako ogibideak

Artziniega eta Guardia hiribilduen elkarlana ikusgai egongo da maiatzaren 7an. Guardian Dultzainero Eguna ospatuko dute eta Artziniegak antzinako ogibide baten erakustaldia egingo du bertan.

29 BIEMH  
YOU MAKE IT BIG

SMART  
SOLUTIONS  
2016ko  
MAIATZAREN 30etik  
EKAINAREN 4ra

Konponbide aurreratuak  
eta negozio adimendunak  
zure enpresarentzat

ADDIT 3D by BIEMH  
FABRIKAZIO  
GEHIGARRIAREN ETA  
3DREN NAZIOARTEKO  
AZOKA

Laguntzaileak: EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN BAZA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

Antolatzaileak: AIMHE ASOCIACION DE EMPRESARIOS DE MANUFACTURA, AFM Advanced Manufacturing Technologies

BILBAO EXHIBITION CENTRE

www.afm.es

www.biemh.com

EXPOSSIBLE!



\_publizitatea

**MAIATZAREN**  
**6tik 15era**

**OTXOMAIO 2016**  
**URDUÑA JAIETAN**

**IKUSKIZUNAK**

**Pilota partida profesionalak**  
**Otxomaioko Hipika kontzentrazioa**  
**II.Zumba master class**  
**Deabru Beltzak**  
**Trapu Zaharraren kale antzerkia**  
**Haur triatloia**  
**Urduña Hiria BTT eta Trail Gau Martxa**  
...

**KONTZERTUAK**

**Ingo al deu?**  
**Akerbeltz**  
**O'Funk'illo**  
**ETS**  
...

**LEHIAKETAK**

**Mus azkar txapelketa**  
**Patata tortila**  
**Paella**  
**Bakailoa pil pil erara**  
...

**Etorri eta gozatu!**

  
**URDUÑA**  
**ORDUÑA**  
*Bereko hiria | Ciudad natural*

**+info:urduna.com**

 **@urduñakoudala**

 **urduñako udala**



\_herriz herri

## Urduña

### ETS eta O'Funkillo otxomaioetan



Maiatzaren 6an joko du TTek elektrotzarangak Argazkia: Raul Olaya

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Jai Batzordeak, Urduñako 19 kirol eta kultur elkarterekin batera ekintza ugari prestatu dituzte maiatzaren lehendabiziko bi asteburuetarako.

Kontzertuei dagokienean ETS (En Tol Sarmiento) eta O'Funk'illo taldeak izango dira nagusienak. Foru Plazan arituko dira maiatzaren 6an eta 14an, 22:30ean eta 00:45ean, hurrenez hurren.

Haiekin batera taularatuko dira egun ezberdinetan "Ingo al deu?" erromeria, Hotza, Remember night Dj, Kosmos, Akerbeltz eta Dj Juanma, Kompadres Muertos, Wusby eta L-Trapy, besteak beste.

Urduñako abesbatzak eta musika bandak ere emanaldi bereziak eskainiko dituzte. Urduñako Oilarrak eta Getxa Goi txistulari taldeak, bestalde, kantukalejira egingo dute. Haurrek ere izango dute musikaz gozatzeko aukera, On diskofesta egongo baita urteen egunean.

Kale animazioetan musika eta giroa zabaltzeaz Ttek eta Akelarre elektrotzarangak zein Haizedoinu taldea arduratuko dira.

#### Txupineroa eta pregoilaria

Lehenengo aldiz, hiriko kultur eta kirol taldeek hautatu dituzte Otxomaioetako txupineroa eta pregoilaria. Horrela, Maria Barbero motoziklista izango da txupinajartitzeko arduraduna maiatzaren 6an 21:00etan. Kirolaria Zaragozaan bizi da gaur egun, BMW Goya Motorrad taldeak fitxatu baitu. Hala ere, poz-pez itzuliko dabere herrira, aspaldiko ametsa betetzera.

Pregoiari dagokionez, Olanen elkarteak irakurriko du. Olanen gastronomiaren ardatz eta 15 urteko ibilbidean San Juan basiliza

berreskuratu dute, hainbat ekintzetan elkarlanean aritzen dira eta nola ekaineko San Juan azoka hala gastronomiaren alde egindako lana aitoritzen duen "Zilarrezko Perretxikoa" saria dira haien jardueraren nagusienak.

#### Eskaintza anitza

Ospakizunak maiatzaren 6an, 7an, 8an, 9an, 13an, 14an eta 15ean gauzatuko dituzte eta ekintza sorta oparoa izango dute urduñarrek. Urteek, esate baterako, haur triatloian parte hartzeko parada izango dute, baita mendi ibilaldi txikian edo pony eta zaldien erakustaldia

### Lehenengo aldiz Urduñako kultur eta kirol elkarteek hautatu dute txupineroa eta pregoilaria: Maria Barbero eta Olanen elkartea

ere. Nagusientzako hitzorduak ere ez dira faltako; dantzaldiak, gastronomia, kirola... Gainera, Bihotza Konpartsak buruhandi berriak estreinatuko ditu, asteburu honetan aurkeztutakoak, alegia.

Bestalde, Berdintasun Arloak berdintasunaren aldeko hainbat jardueraren antolatzaile du. Informazio guztia: [www.urduña.com](http://www.urduña.com) webgunean dago.

### Amerikatik Urduñara, herri indigenen komunikazioa hizpide



Hainbat hitzaldi egongo dira jardunaldietan.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Herri indigenen inguruan hitz egitean, jende gehienaren burura berehala etortzen den pentsamenduetako bat hau da: buruan lumak jantzita bizi diren gizakien nondik norakoak. Hala

ere, Ameriketako jatorrizko eta hasierako biztanleak izateak ez du esan nahi historiari kanpo bizi direnik; Mugarik Gabe gobernu kanpoko erakundeak eta Aiaraldea.eus-ek

erakutsiko duten moduan. Proiektu biek antolatu dituzte "Komunikatuz eraldatu-herriak euren komunikazioaren jabe" jardunaldiak. Egitasmoaren helburua herri indigenek dauzkaten erronkei erantzuteko garatu dituzten egitasmo komunikatiboak konpartitzea da.

#### Elkarlana urduñarrekin

3 eguneko jardunaldiak izango dira (maiatzaren 18an, 20an eta 23an) eta mahai-inguruak, dokumental eta zinema emanaldiak eskainiko dituzte. Ekintzaile indigenak ez ezik, Urduñako norbanako eta taldeen laguntza eta babesa bistakoak izango dira. Izan ere, maiatzaren 18ko solasaldian Nuria Telleria urduñarrak Amerikan izandako esperientziak azalduko ditu, besteak beste.

Horrez gain, Adi Emakumeak elkarteak, herriko hainbat pertsonen eta Gazte Asanbladak kulturarteko afaria prestatuko dute maiatzaren 20an.

### 2017an egingo ditu Renfek lanak geltokian

ERREDAKZIOA |

Renfek iragarri du Urduñako geltokiaren irisgarritasuna egokitzeko lanak egingo dituela 2017an. Ineco aholkularitza enpresari eskatu dio proiektua prestatzeko eta udan obren esleipena egiteko asmoa dute. Pasa den astean manifestazioa egin zen hirian Renferi tren zerbitzuan irisgarritasuna bermatzea eskatzeko.



Maria Luisa Goikoetxeak hartu zuen hitza mobilizazioan. / Antonio Muñoz

### Bi etxola erre dituzte Ponatan

ERREDAKZIOA |

Gorobelego Ponata eremuan dauden bi etxolak erreta aurkitu zituzten asteburuan: egurrezkoa guztiz txikituta eta harrizkoa ez hainbeste. Salaketa jarri dute eta Ertzaintza ari da ikeritzen suteen nondik norakoak.

Bi txabolak Larruazabalgo Administrazio Batzarrarenak dira eta eraikin horietako baten erabilera artzain baten esku utzi zuen erakundeak.



Erretako borden irudia. Argazkia: Jose Mari Gutierrez



## \_herriz herri

### Amurrio

# 12,6 milioi euroko aurrekontua onartu dute

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate

Apirilaren 27an Amurrioko Udalak 2016 urteko aurrekontuak onartu zituen ezohiko osoko bilkuran. Herriak 12.608.991,09 euro izango ditu aurten, iaz baino 714.000 euro gutxiago. Aurrekontuen proiektuak EAJ eta PSE-EEren aldeko bozak jaso ditu, Guk Bai, PP eta EH Bilduren abstentzioak eta Orain Amurrio-Po-demosen aurkako botoak.

#### Inbertsioak

Inbertsioei dagokionez, Amurriok guztira 1.399.840 euro erabiliko ditu aurten, iaz baino 168.433 euro gutxiago.

Horietatik proiektuak garrantzitsuena Frontoi kaleko urbanizazioa izango da, Obra eta Zerbitzuen Foru planaren laguntza ere finantzatu dena. Besteak beste, saneamendu eta estolde-

ria sistemak berritzeko 300.000 euro erabiltzea onartu dute eta jolas parkeetan 60.000 euro inbertituko dituzte, konponketa orokorrak egin eta horietako bat estaltzeko.

Gainera, Tokiko Enplegu Planak 25.000 euro gehiago jasoko ditu eta herriko pertsona nagusiek diru-sail propioa izango dute.

Bestalde, euskara ikasteko, Re-formeko gimnasioa hobetzeko, bonotaxia ordaintzeko eta Administrazio Batzarrentzat diru gehiago egongo da. Horrez gain, Apymcak -herriko merkatarien eta ostalarien elkarrekin- 6.000 euro gehiago jasoko ditu.

Onartutako txostenaren arabera, langileen gastuek 4.014.007 euro suposatuko dizkiote Amurrioko Udalari, iaz baino %1,3 gehiago.



**BIZIKLETEN APARKALEKUAK:** Amurrioko Udalak bizikletak aparkatzeko gune berriak instalatu ditu. Argazkia: Amurrioko Udala.

### Lan egiteari utzi gabe abiatu dute Tubos Reunidos enpresan espedientea



#### ERREDAKZIOA |

Enplegua erregulatzeko espedientea apirilaren 21ean abiatu zuen Tubos Reunidos enpresako zuzendaritzak. Hala ere, behargin gehienek lanean jarraitu beharko dute, gutxienez, maiatzaren bigarren hamabostaldia heldu arte.

Iturri sindikalek azaldu dute ekoizpena ezin dela gelditu eta eskariak bete behar dituztela.

Egoerak indartu ditu ELA eta LAB sindikatuen argudioak eta jarrera, espedientearen arrazoiaren aurka txostena prestatu baitzuten eta akordioa sinatzeari uko egin baitzieten.

Izan ere, txosten horren ondorioak azaldu dituzte bi sindikatu horiek gaur Gasteizen egindako bileran. Bertan lan ikuskaritzarekin elkartu dira langileen ordezkariak eta zuzendaritza, bakoitza bere kabuz: 10:00etan eta 12:00etan, hurrenez hurren.

#### Eskumenik gabe

Dena den, iturri sindikalek azaldu dute bileraren prozedura hutsa izan dela, azken lan erreformak eskumenik gabe utzi baitu ikuskaritza.

### Orozko

### “Zabaleko” izena berreskuratu dute orain arte “Gotxi” izendatutako auzunean



#### ERREDAKZIOA | Zutoia Latatu

Zabalekoko auzotarrek, orain arte “Gotxi” izendatua, euren toponimo ofiziala Zabaleko izatea eskatu diote udalari. Eskara horri erantzuna emanda, osoko bilkurak Zabaleko izatea auzo horren izen ofiziala onartu du. Aldaketa toponimiari eta historiari erreparatu egin da; betidanik Zabaleko izan baita izena.

### Udalak antolatutako barnetegia izan dute gazteek Gorbeian



#### ERREDAKZIOA |

San Prudentzio Jaia dela eta Orozkoko hainbat gazte zubi izan dutenez udalak barnetegia antolatu du Gorbeian; Goikogane Mendi Taldearen atarpean. Herriko 20 gazte parte hartu dute ekimenean eta ingurua zein bere historia ezagutzeko parada izan dute zenbait elkar-terren laguntza.



aholkulariak eta aseguruak

### \_Errenta aitortpenari nola egin aurre

*Udaberria, seguraski, gehien itxaroten dugun urte-sasoia da, eguraldia hobetu, ariketa fisiko gehiago egin, herrietako lehenengo festez gozatu, maitasun eta zoriontasuna piztu... Baina udaberriarekin batera badator biztanlegoaren zati handi bat beldurtzen duen une bat: Errenta aitortpena.*

*Oraintxe bertan, guztiok ados egongo ginake, fiskalizazio eta zergen gaia modan dagoela esatean. Horretarako azkenaldian alderdi politiko ezberdinak egiten dituzten kanpainak ikustea besterik ez dago, eta arlo honek komunikazio hedabideetan betetzen duen denbora. Argi dago inork ez duela gogoko zergak ordaintzea, nahiz eta guztiok jakin azken hauek ezinbestekoak direla herritarren ongizatea bermatzeko. Arazoa da, momentu honetan ez dela erlazionatzen zergen ordainketa guztion ongizatearekin. Arrazoi osoarekin, zergak langilegoak eta klase ertainak bakarrik ordaintzen dituenaren pertzepzioa dugu guztiok. Guzti honetan, erru handia dute azkenaldian ematen ari diren korrupzio kasuek, murrizketek, erreforma fiskal eta laborek...*

*IRPFren aitortpena, beste zerga batzuekin konparatuz, zentzu gehien duen zerga da, diru kopuru gehien biltzen duen zerga delako eta zuzena zein “progresiboa” den zerga bakarra delako. Pertsona aberatsenek soilik ordaintzen dute orain dela 20 urte ordaintzen zuten %35a. Tasa marjinal maximoa %65 izatetik %49 izatera pasatu da azkeneko urteetan. Honekin batera ahal izan dituzten dedukzio legal eta ilegal guztiez baliatu dira gutxiago ordaintzeko; Sicov, paradisu fiskalak...*

*Horregatik, eztabaidarekin jarraitzea beharrezkoa ikusten dugu, benetako errentaren aitortpen progresibo bat exijituz, non gehien dutenak izango diren gehien ordaintzen dutenak herri eta jendarte bezala aurrerapausoak eman ahal izateko.*

Foru kalea, 2 · AMURRIO · 945 39 33 51

Lamuza, 12 · LAUDIO · 946 72 74 28

Torre de Ugao, 12 · UGAO · 946 03 91 65

[www.elkarlan.eu](http://www.elkarlan.eu)

### Aiara

### Udalekuak antolatu dituzte udalak eta Ikastolak

#### ERREDAKZIOA |

Aiarako Udalak, Etxaurren Ikastolako IGEarekin elkarlanean, 6 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako udalekuak egingo ditu Orion ekainaren 27tik 30era. Izena emateko epea maiatzak 17an amaituko da. Informazio gehiago eskuratu daiteke [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) udal webgunean.



**SAN PRUDENTZIO JAIK:** Eskualdeko lehenengo jaien artean daude Aiarakoak. 22an jaurti zuten txupinazoa eta geroztik hainbat ospakizun egin zituzten (kontzertuak, Aiarako I. Duatloia...). Argazkia: Maddi Isasi



# \_jendarte

## Duela 500 urte jaso zituzten idatziz lehenbizikoz Larruazabalgo legeak

500 urte igaro dira Larruazabalgo herri-batzarrak bere funtzionamendu sistema eta arau propioak idatziz lehenbizikoz jaso zituenetik. Hori dela eta, hainbat hitzaldi eta ekitaldi osatutako urteurrena prestatu dute Urduñan.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Urduñan kokatua dago Larruazabalgo herri-batzarra. Lau herririk osatua dago: Lendoñogoiti, Lendoñoitei, Belandia eta Mendeika. Batzar Administrazio horiek bere funtzionamendu eta arau propioak dituzte aspaldianik. Hain dira lege horiek zaharrak, ezen eta maiatzaren 4an 500 urte beteiko baitira lehenbiziko aldiz idatziz jaso zirenetik.

Ustiapenen<sup>(1)</sup> kudeaketa, herrien arteko istiluak nola konpondu... ugariak dira ordenantza horietan jasotzen diren kontuak. Arauak ez betetzeko ezartzen ziren isunak<sup>(2)</sup> ere zehazten dituzte paperek.

Zentzu horretan, berezia da Larruazabal eta Urduñaren arteko harremana. "Beste herrietan udalerrria bakarra da eta arau berdinak daude guztientzat", azaldu du Lendoñoiteiko auzokidea den Jose Mari Gutierrezek, "baina kasu honetan ez. Ordenantzek nekazaritza ustiapen eremu bat zehazten dute Larruazabalgo biztanleentzako, eta Urduñak ezin du bertan eskua sartu, adibidez".

### Gaur egun ere indarrean

Duela bost mende idatzitako ordenantza horiek, gainera, indarrean jarraitzen dute oraindik. Hori bai, murriztagoa da gaur egun duten eragina, Gorobel mendizerraren zati bat kudeatzera mugatzen baita Larruazabalgo herri-batzarra. "Nik txikitan gogoratzen dut bilerak egiten zituztenean auzoko guztiak joan behar zirela batzarretara. Ez baziren joaten isunak izaten zituzten", oroitu du Gutierrezek.

Gaur egun ez da halakorik gertatzen. "Jende gehiena ez da batzarretara gerturatzen, bertan tratatzen diren gaiak oso jende zehatzaren interesekoak direlako".

### Egitarau anitza

Hainbat ekintza egingo dira aste honetan ordenantzen 500. urteurrena ospatzeko. Maiatzaren 4an egingo da ekitaldi nagusia, 12:00etan Mendeikako Mikel Deuna izeneko landan, bertan biltzen baitzen herri-batzarra. Aurreratu dutenez, plaka bat



Lendoñoiteiren antzinako irudi bat. Iturria: Jose Mari Gutierrez

## Gaur egun indarrean jarraitzen dute duela 500 urte onartutako ordenantzek, euren eragina murriztu egin den arren

jarriko dute, eta Gernikako Arbolen kimu bat landatu. Ondoren, arratsaldean, Larruazabali buruzko liburua aurkeztuko dute Urduñako Alondegian.

"La comunidad de aldeas de Orduña. La junta de Ruzabal" da liburuaren izenburua, eta Jose Ignacio Salazar Arechaldek idatzi du. Duela zenbait urte plazaratu zuen beste liburu baten garapena da.

Hurrengo egunetan ere hainbat hitzaldi egongo dira. Maiatzaren 12an, esaterako, Larruazabalen eta Bizkaiko nobleziaren arteko harremana izango dute hizpide<sup>(3)</sup>, Alberto Santana Ezquerraren eskutik. Maiatzaren 19an, berriz, hiribilduen eta lur-komunitateen arteko harremanaz mintzatuko da Juan Manuel Gonzalez Cembellin. Azken hitzaldia Salazarrek eskainiko du maiatzaren 20an. 1808-1936 bitartean Larruazabalen bizitako "garai aztoratuen" berri emango du ikerlariak. Hitzaldi guztiak Urduñako Alondegian izango dira.

### Hiztegi lagungarria

Ustiapen<sup>(1)</sup>, nekazaritza edo abeltzaintza eremu / Isun<sup>(2)</sup>, multa / Hizpide<sup>(3)</sup>, gai moduan



Koldo

Gilsanz  
PSIKOLOGOA

## \_Hankamotz

Barkatu ez banaiz jaikitzen

**K**oadro bat miretsi nahi badut eta museoan nire aurrean inor badago, pertsona horrek alde egin arte itxaroten dut, irudia bere osotasunean ikusi ahal izateko. Eskultura baten kasuan angelu guztiak miazten ditut, zirrikituetatik begiratu, textura ikusi...

Sortze prozesuan bezala, artelan bat ikustea berarekin elkarrekintzan sartzea da eta horrek nigan sortzen duen esperientzia da niretzat balioa duena.

Objektua baino, nigan eragiten duen erreakzio subjektiboa. Kontaku horretan sortzailearekin harreman bat dago, eta ni hor nabil, mezu ezkutua-ren bila.

Gauza bera gertatzen zait eleberririk irakurtzean. Liburua gustatu bazait eta epilogo bat badago, ez zait bururatzen hori ez irakurtzea; hori ere artelanaren parte da.

Antza, zineman ez da kode bera errespetatzen. Areto gehienetan, film bat amaierako letrak hasi bezain pronto amaitzen da. Eta zer gertatzen da, geroz eta ohikoagoa den bezala, kredituen ostean beste eszena batzuk badaude?

Beste kasu batzuetan, nahiz eta eszena gehigarri ez egon, amaierako musika eta letrak artelanaren tempoaren parte inportantea dira. Adibidez, Loreak edo Truman pelikuletan azken gertakizunen inpaktua asimilatzeke balio dute.

Horregatik, filma amaitu baino lehen argiak piztu egiten bada, barkatu ez banaiz jaikitzen.

## EGITARAU

### Maiatzak 4

12:00 // Ekitaldi nagusia Mendeikan

12:30 // Belandiako elizara bisita

### Maiatzak 4

19:00 // "La comunidad de aldeas de Orduña. La junta de Ruzabal" liburuaren aurkezpena Alondegian

### Maiatzak 12

19:00 // Larruazabalgo etxe eta herrixken Bizkaiko nobleziaren gaineko hitzaldia Alondegian

### Maiatzak 19

19:00 // "Hiribildu eta lur komunitatea. Batera, baina nahastu barik" Alondegian

### Maiatzak 19

19:00 // "Garai aztoratuak Larruazabalgo Herri-batzarrean, 1808-1936" Alondegian



## Erabakitzeke eskubidea, erditzetik

Geroz eta gehiago dira ahalik eta interbentzio eta medikalizazio gutxiago dituzten erditzeak nahi izaten dituzten emakumeak. Argazkia: Lee

Modu askotan jaio daitezke umeak: gehienek ospitaletan ikusten dute argia lehenbizikoz, baina badaude baita ere bizitza etxean hasten dutenak. Erreportaje honetarako kontsultatutako pertsonak ados daude gauza batean: ez dagoela berez besteak baino hobea den erditze-motarik. Amak zer erabakitzen duen, horretan datza gakoa.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Asko aldatu da umeak erditzeko modua azken hamarkadetan. Horretaz asko daki Isabel Morenok. Urte asko daramatza berak Urduñan emagin moduan, amari lekukoa hartuta. Ofizio gogorra zen emaginarena ume gehienak etxean jaiotzen zirengaraitan. "Eguneko 24 ordutan egon behar zinen prest. Batzuetan, goizeko lauretan esnatzen zituzten, emakume bat erditzeaz zegoelako", azaldu du Morenok.

70. hamarkadan jazo<sup>o</sup> zen aldaketa. "Langileak Gizarte Segurantzaz sartzan hasi ziren, eta mentalitate aldaketa gertatu zen", oroitu du Urduñako emaginak. Gaur egun, oso gutxi dira euren etxeetan erditzeaz erabakitzen duten emakumeak. Holandan eta iparraldeko beste herrialde batzuetan estatuak etxean edo ospitalean erditzearen artean aukeratzeko beta<sup>o</sup> ematen die haurdun dauden emakumeei. Hemen, berriz, etxean erditu nahi duenak bere poltsikotik ordaindu behar izaten du.

Diruarena kenduta, baina, etxean erditzeak ez du aparteko zailtasunik eragiten. "Emakumearen gorputza prest dago bere kabuz erditze on bat izateko", Morenoren hitzetan. Aparteko arazorik aurreikusituz, "ospitalean erditze bezain segurua" da etxean egitea. "Klinikak segurtasun gehiago eman dezake dituen giza eta teknologia baliabideengatik", azaldu du emaginak, "baina as-

### 70. hamarkadan pasa ziren erditzeak ospitaletan izatera; orduan arte etxean izaten ziren gehienak

kotan horrek guztiak estres bat sortzen du, eta arazoak sortu daitezke horrela". Etxean, berriz, mugimendu askatasun handiagoa dauka emakumeak eta, ondorioz, erditzea bere erritmoan eramateko aukerak handiagoak dira.

Hala ere, Morenok aipatu du ospitaleek "hirugarren aukera bat" ere eskaintzen dutela: erditze ez horren interbenitu eta medikalizatu bat izatearena. "Geroz eta gehiago dira mota horretako erditzeak eskatzen dituzten emakumeak".

Aukerak aukera, amarena da azken hitza. "Bera da erditzearen protagonista, eta bere desioak errespetatu behar dira".

#### Erditzearen osteko pausoak

Baina jaiotza hasiera baino ez da. Erditza pasata, biderkatu egiten dira umeari begira hartu beharreko hautuak: haurra nola elikatu, nola hezi, nola zaindu... mota horretako dudak konpartitu eta argitzea sortu zen 2014ko abenduan Laudion edoskitze taldea. Handik gutxira beste bat sortu zen, edoskitzearen sortutako beste afera<sup>o</sup> batzuk tratatzeko: hazkuntza taldea.

"Lehen haurrak askoz modu irekiagoan hezten ziren, familia eta auzokide sare batek lagunduta", azaldu du bitaldeensustatzailerako bat den Esti Garmendiak. Baina sare hori desegiten ari da. "Gaur egun erditu

### Laudio eta Amurrión lau aldiz txikiagoa da gaur egun dagoen jaiotza kopurua duela 40 urte zegoenarekin alderatuta

ostean etxera itzultzen diren ama askok bakarrik ikusten dute euren burua". Horren aurrean "tribua sortzea" da bi talde horien helburua. "Bakarrik ez gaudela ikustea, sostengatzen gaituen sare bat dagoela sentitzea".

Garmendiak azpimarratu du "elkarrekiko errespetuan" oinarritutako taldeak direla. "Amabatek edoskitzeari utzi eta haurrari biberioa emateko hautua hartzen badu ere, arazorik gabe etor daiteke".

Hilean behin biltzen dira bi taldeak, biak ala biak Laudion Kultur Etxean. Edoskitzearena hilabetezko azken larunbatean egiten da, 11:00etatik 13:00etara. Hazkuntza-arena, berriz, hilabetezko hirugarren ostiralean, 17:00etatik 19:00etara. Orozkon ere sortu berri da antzeko talde bat, Amandre Emakume zirkuluan parte hartzen duten hainbat emakumeren ekimenez. Hilero biltzen dira, ilargi betearen aurreko asteazkenean, 10:30ean Kultur Etxean.

#### Ama ez izateko hautua

Erditzeko modua soilik ez, erditze kopurua ere nabarmen aldatu da azken hamarkadetan. "Gaur egun, duela 40 urte baino lau aldiz txikiagoa da jaiotza-tasa Laudion eta Amurrión. Orozkon eta Urduñan, berriz, bi aldiz txikiagoa da", azaldu du Ixone Collado orozkoarrak. Master Amaierako Lana bukatu berri du berak, ezohiko




# HEZKUNTZA AIARALDEAN

---

GEHIGARRI BEREZIA

Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Haurreskolak



*Eskualdeko eskaintza hizpide*

---



# · erreportajea ·



Argazkia: Audio LHUI

## HEZKUNTZAREN GARAPENA: ETENIK GABE HOBEKUNTZA BILA

*Entziklopediatik gaiak buruz ikastetik taldean proiektuak garatzera. Hezkuntza sistemak aldaketa ugari izan ditu azken hamarkadetan. Teknologia berrien merkaturatzeak irauli egin du ikasketa sistema.*



Argazkia: Audio LHUI

Hezkuntza asko aldatu da azken urteetan. Gizartea aldatu den bezala, irakasteko zein ikasteko moduak ere irauli dira.

Aurreko mende hasieratik, erlijio kristauak markatu du hezkuntzaren norabidea, baita Aiaraldean ere. Laudion, Amurrion eta Urduñan, eskualdeko ikastetxe gehienak kongregazioek kudeatzen zituzten, apaizak eta monjinek zirelarik irakasle.

Baina ba al zenekien Gerra Zibilak hezkuntza prozesua urtebetez moztu zuela Aia-

raldean? 1936tik 1937ra izan zen hori.

Frankismo garaian heziketa metodologia sinplea zen. Ikasteko 'Entziklopedia' deituriko eskuliburu bakarra erabiltzen zuten ikasgeletan. Irakasteko sistema errepikapen oinarritzen zen, ikasleek ikasgaiak buruz ikas zitzaten. Hezkuntza sistema sexuaren arabera ezberdina zen, neskek eta mutilak klase edota ikastetxe desberdinetan elkartzen zituzten.

Gaur egun, berriz, egoera oso bestelakoa da. Fran-

kismo garaia ostean, heziketa zabaldu eta ikastetxe laikoak sortu ziren. Horretaz gain, heziguneetan ikasleek

**Ikasleen gaitasunetan oinarritzen diren heziketa sistemak gailentzen dira gaur egungo ikastetxeetan**

ikasgai desberdinak lantzen hasi ziren.

Azkenaldian metodologia berritzaile ugari sartu dituz-

te ikasgeletan, IKT teknologia berriei lotuak.

### Metodologia berritzaileak

Liburu eta koadernoengainean lan egitetik, sarean lan egitera pasa dira ikasleak XXI. mendeko bigarren hamarkada honetan.

Ikasgela birtualetan ibiltzen dira eta 2.0 munduan murgiltzen dira txikitatik. Gainera, ikasleen gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza sistemak gailentzen ari dira. Heziketa moduak aurretik lantzen ez zituzten esparruetan

murgiltzen ari dira: taldean lan egitea, proiektuen garapena, elkarlana, autonomia, kultura aniztasuna, etab.

**XXI. mendeko hezkuntza metodologia berritzaileak IKTetan oinarritzen dira**

Gaur egun irakastean baino, hezitzean datza ikastetxeen lanak, ikasle bakoitzaren berezko gaitasunak indartzean.



# Elebitasunetik eleaniztasunera

*Gaur egungo ikasle gehienak eleanitzak dira, euskara eta gaztelania ez ezik, atzerriko hizkuntzak ere txertatu baituzte hezkuntza prozesuetan.*

1791an Manuel Fernández de Orive Orozkoko bikarioa eta Laudioko apaizak idatzi zuenaren arabera, garai horretako hezkuntza euskaraz eskaintzen zen Aiaraldean: "doktrina euskaraz irakasten da, eskualdeko hizkuntza dena". Hala ere, euskarari ezarritako

Euskal Herriko zati handi batean, lurraldearen hainbat lekutan desagertzeko joera nabaria izanik, Aiaraldea kasu. Legez kanpoko heziketa eskaintzen ibili ondoren, 1977an Laudio Ikastolak lortu zuen legezkoa izatea eta Amurrioko Aresketa ikastola ere jaio zen. 1980 aldean hasi zen D eredua eskualdeko eskola eta institutu publikoetan ezartzen, hezkuntzan euskararen presentzia indartzeko asmoz eta, ondorioz, horren erabilera sustatzeko helburuarekin. Laudio BHI, adibidez, orain dela 34 urte hasi zen hori eskain-

goen 2015-2016 ikasturte honetan, adibidez, EAEn batxilergoa ikasten ari diren gazteen %61ak D eredua aldeko apustua egin du.

## Txikitatik ere ingelesez

Alabaina, gaur egun, auskaraz harago doaz ikasleak. Globalizazioaren garai honetan, hizkuntzak ezagutzeari geroz eta garrantzi handiagoa eskaintzen diete enpresetan eta, hortaz, formakuntzan ere atentzio berezia jartzen diote alor linguistikoari. Eleaniztasuna lortzeko lehenengo pausuak Haur Hezkuntzan ematen dituzte ikastetxeetan, batez ere ingelera landuz. Baina badira 0-2 urteren artean atzerriko hizkuntza lantzen duten hezikuntza lantzen duten hezikuntza lantzeko kezka aspaldi hasi zen. 1934an, II Errepublika garaian, Estatuan onartu zuten Batxilergoako Ikasketen Planaren arabera, frantsesa irakastea derrigorrezkoa zen.

## 80.hamarkadan hasi zen lehenengoz eskualdean D eredua ezartzen

ko debekuak asko markatu du euskal hezkuntzaren historia. Urteetan zehar hezkuntza baliatu zuten euskara desgertarazi eta gaztelania nagusitzeko asmoz, batez ere Frankismo garaian. Elebakarrak izatera behartu zituzten urte horietan ikasi zuten gehienak. Errepresio horren ondorioa ezaguna da: 70.hamarkadan euskararen egoera oso larria zen

## Gaur egungo batxilergoko kasleen %61ak D ereduari ikasten du

tzen. Elebitasuna indartzen hasia zen eta orduan, euskara hutsezko heziketa etengabe hazi da. EUSTATen datuen arabera, amaitzear da-



## Publizitatea



### Rocío Ezquerro

ARTZINIEGA LANGUAGE SCHOOL  
akademiako zuzendaria

#### Zergatik da hain garrantzitsua hizkuntzak ikatea?

Kultura bakoitzetik ikuspegi berezia ematen digulako. Hizkuntza herri bakoitzaren 'egiten jakinari' lotuta dago. Herriak duen identitatea ezagutzeko aukera da. Nire esloganak dioen moduan, 'open your mind', mundura zabaltzeko aukera eskaintzen digute.

#### Zertan laguntzen du hizkuntzak jakiteak?

Ikasteko gaitasuna irauli egiten du. Gaur egun ez da soilik beharrezkoa espediente laguntzeko hezkuntza, lanpostu bat lortzerako orduan elementu bereuzgarria ere bada.


#### Noiz da momenturik onena hizkuntzak ikasten hasteko?

Horren inguruan teoria desberdinak daude, baina ni goiz ikasten hastearen aldekoa naiz, ama hizkuntza eta Euskal Herriko hizkuntza den euskararekin batera.

#### Zer nabarmenduko zenuke zure akademiako metodologiari?

Nire akademian metodologia adina eta helburuen arabera antolatzen da. Taldeak txikiak dira, 6 eta 7 pertsona ingurukoak. Haur Hezkuntzako taldeetan, adibidez, jolas, irudi eta abestiak baliatuta ingelerarekin hartu emana sustatzen dugu. Lehen Hezkuntzako ikasleek haien mailara egokituta dauden liburuak lantzen dituzte. DBHtik aurrera HEO edo Cambridgeko tituluak lortzeko prestakuntzari ekiten diogu. Ingeleraz ezer ez dakiten pertsona nagusientzat ere eskaintza dugu.

Urte hauetan motibatuta datoren jendearekin topo egin dut, baina baita behartuta datozen pertsonekin ere. Klase guztietan gogoak jarri eta esfortsua egitea beharrezkoa da. Saiatzen naiz ikasle bakoitzari behar duen hori ematen.



INGELESA  
3 URTETIK AURRERA MAILA GUZTIAK  
ELKARRIZKETA-KURTSOAK  
B2 ikastaro trinkoak Uztailaren 4tik 22ra  
FIRST / E.O.I

FRANTSEZA  
A1 MAILATIK B2 RA  
ALEMANIERA  
A1 / A2  
www.artziniegalinguageschool.eu  
Tel.: 652 73 32 67 roezquerro@hotmail.com  
www.facebook.com/ArtziniegaLanguageSchool



# · Laudio BHI ·

## ETORKIZUNARI HELTZEKO ESKAINTZARIK ZABALENA, GERTU

Laudio BHIk goi mailako ikasketen abaniko zabalari bide emateko beharrezko ikasgaiak ditu bere eskaintzan: Arteak, Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientzia batxilergoak. Gainera, eskualdean Arte batxilergoa egiteko aukera ematen duen bakarra da, horretarako espazio, tresneria eta irakasle profesionalak baititu. Ikasketa hauek euskaraz egiten dituzte, D ereduko eskaintza publikoa bermatuz. Aurten 200 ikasle inguru izan dituzte batxilergoan.



**Gorane Añibarro**  
Erizaintza  
gradua

**Nola lagundu dizu Laudio BHIk ikasiko duzuna erabakitzerakoan? DBH3tik izan dut biologia gogoko, nire pasioa da. Ikastetxeak eskaini zituen hitzaldietan erizainen lana deskubritu eta erabakia hartu nuen.**  
**Formakuntzaz gain, zer eskaini dizu Laudio BHIk urte hauetan?**  
Aiaraldeko beste herri batzuetako lagunak egiteko aukera izan dugu eta niretzat behintzat oso aberasgarria izan da.



**Miriam Millán**  
Karakterizazioa eta  
makilaje profesionala

**“Nerea gure orientatzaileari esker, erabaki dut unibertsitatea ez dela niretzat. Horretaz aparte, goi formakuntzarako beste aukera oso on batzuk daude”**  
**“Pertsona moduan asko hazi naiz Institutuko garai honetan”**



**Erlaitz Gómez**  
Fisika eta injeniaritza  
elektronikoa

**Nola erabaki duzu hori ikasi nahi duzula?**  
Orientazio zerbitzuaren laguntzaz erabaki nuen injeniaritza ikasi nahi nuela, beti gogoko izan ditut zientziak. Azkenaldian unibertsitateen webguneetan galdezka ibili naiz gradu bikoitz hau topatu dudana arte.  
**Nolababurtukozenuke Laudio BHIIn igarotako garaia?**  
Betidanik izan dugu oso giro ona klaseetan. Kideekin harreman polita egon da. Urte hauetan egin ditudan lagunak dira onena.



**Eneko García**  
Nazioarteko  
harremanak

**“Institutuak saio informatiboak antolatu ditu eta unibertsitate eta ikasketa zentroetara hainbat bisita egin ditugu”**  
**“Beti izango ditut gogoan Institutuan ezagutu ditudan pertsonak eta klasean egindako lagunak”**



**Irene Barañano**  
Itzulpengintza eta  
interpretazioa

**Laguntza jaso duzu Laudio BHIIn ikasketak hautatzeko?**  
Bai. Irakasleek aholkuak ematen dizkizute ikasgaietan lortutako emaitzen arabera, zurekin bat datozen ikasketak gomendatzeko.  
**Zer gogoratuko duzu Institutuan eman dituzun urte hauetatik?**  
Gauza ugari! Latineko klasea, adibidez, bereziki gogoko dut eta bertan ikasitakoa ez dut ahaztuko. Egingandako lagunak ere nirekin egongo dira beti, noski!

## OLH ETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK

### Ile apainketa: edertasuna lanbide



**Saad Daoudi**  
Ile apainketa zikloko  
2.mailako ikaslea

**Oinarrizko Lanbide Heziketako ile apainketa laguntzaile ikasketak eginda, Saad Daoudi Amurrioko Izmarra ileapandegian praktketan dago.**

**“Eguneroko egoera eta arazoei aurre egin behar izatea oso ona da ikasteko”.**

Laudio BHIIn jaso duen formakuntzatik interesgarriena, tailerrak direla uste du.

**“Beste askoren artean, depilazio saioak bereziki gogoko nituen”.**

Praktikak etxetik gertu egin nahi zituela bazekien.

**“Nire nahiara egokitzen zen ileapaindegi bat topatzen lagundu ninduten eta kontsultatu genuen lehenengotik baiezkoa jaso genuen”.**

Saad Daoudik argi dauka ikasten jarraituko duela.

### Estetika eta edergintza

Estetika zikloko 1. mailan dago Yaiza Álvarez. Atsegin ditu astero herriko jendearekin egiten dituzten tailerrak. “Asko eskertzen dute gure lana. Oso aberasgarria da, benetako praktikak egiteko aukera dugu eta”.

Lara Perrino, berriz, Bilboko Spa Jardines de Albian ari da praktikak egiten, masaje

lanak burutzen. “Klase eta tailerrez gain, teknika berri-tzaileen erakustaldi ugari eskaini dizkigute puntako enpresen eskutik”.





# · Laudio BHI ·



## IES LAUDIO BHI BIGARREN HEZKUNTZA IKASTE

### BATXILERGO ESKAINTZA ZABALA D EREDUAN



- ARTEAK
- ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

AURRE  
MARIKULA  
ZABALIK  
Maiatzaren  
2tik > 12ra

### LANBIDE HEZIKETA ZIKLOA B eta A EREDUAN



- ERDI MAILAKO ZIKLOA
- PRAKTIKAK ENPRESETAN
- ESTETIKA ETA EDERGINTZA
- Ile-apainketarako laguntzailea (OLH)

AURRE  
MARIKULA  
Maiatzaren 23tik  
ekainaren 3ra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA  
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK  
LANBIDEKO IKASTAROAK



Zumalakarregi 34  
01400 Laudio-Llodio (Araba)  
Tfnoa. 94 672 00 86  
Fax 94 672 26 19

Isasi bidea, 3  
01400 Laudio-Llodio (Araba)  
94 672 18 70  
fplaudio@euskalnet.net



- Informazio + [www.laudioinstitutua.net](http://www.laudioinstitutua.net)



# · ZARAUBE BHI ·

## FORMAKUNTZA ZABALA

### Batxilergoa eta Lanbide Heziketaren arteko elkarlana



egiten dituzte probetak hartuta test ezberdinak eginez; gelan makinei buruz hitz egin badute, tailerretan eta lanbide heziketako ikasleen eskutik, makina horiek martxan jarri eta fisikoki erabili egiten dituzte; gelako arbelan zirkuito pneumatikoak

Batxilergoa eta heziketa zikloen arteko harremana indartze bidean daude ZARAUBE BHI. Badira urteak batxilergoan teknologia ikasten duten ikasleek euren prestakuntza Lanbide Heziketako ekipamenduetaz baliatuz osatzen dutela.

Honela, ikasleek hainbat ordu ematen dituzte urteroko tailer ezberdinak egiten, klasean ikasitakoa praktikan eramatean.

Ugariak dira saio hauen adibideak: "Ikasgelan materialak aztertu badituzte, laborategietan saiakuntzak

ikusi eta orrian marraztu badituzte, automatismo tailerretan zirkuito horiek montatzeko eta probatzeko aukera dute", azaldu du Iñaki Rodrigo ZARAUBE BHIko zuzendariak. "Eginez benetan ikasten da", adierazi dute ikasleek.

### Salerno-Amurrio ikasleen trukaketa



Batxilergoko lehen mailakoek nazioartean ikasle trukaketak egiten dituztela da ZARAUBE Institutua bereizten duen proiektuetako bat. Aurten, esaterako, Salerno-ko Regina Margherita ikastetxeko ikasleekin trukea egin dute. Guztira ZARAUBE BHIko 26 ikasle joan dira Italiara, bi irakasleren laguntzarekin.

Ikasle bakoitza bere adineko italiar baten etxean egon da aste batez, eta bertako kultura aberatsean murgildu da.

#### Kultur trukea helburu

Bidaiaren bidez, Euskal Herriko eta Italiako kulturak elkarbanatu dituzte ikastetxeko gazteek. Aztarna arkeologiko ugari ikusi dituzte, Pompeya eta Ercolano esaterako. Baita hainbat hiri polit ere: Napoli, Amalfi, Sorrento...

Halaber, jatorrizko gastro-

nomia ezagutu dute, italiarra pixka bat ikasi, eta atzerrian beste ohiturak eta baliokak daudela jakin.

ZARAUBE Institutuko zuzendaritzaren arabera, garrantzitsuena Italia hegoaldean lagun asko egin dituztela da.

"Ikasle guztiak itzuli dira pozaren pozez, esperientzia oso baliagarria baita mundua ikusteko, modu ez oso garesti batean", adierazi dute.

#### Italiarren bisita

Irailean italiarrak izango dira Amurrion hurbilduko direnak: "Orduan izango dugu gure kultura ezagutzeko aukera, gure gastronomia, paisajeak eta jendea ezagutuko dituzte. Ziur gaude Aiarako osoak harrera ezin hobea egingo diela. Eta batek daki, agian euskara ere ikasteko gogoia piztuko zaie gure gonbidatuei. Arrivederci!".

## NAZIOARTEAN ERREFERENTE

### Fabriketan mantenu azterketak egiten dituzte ikasleek

"Predictivo" programaren bidez, eskualdeko enpresetan mantenu lanak egiten dituzte ZARAUBE BHI. Hala, gelan ikasitakoa aplikatzen dute fabriketako makinak aztertuz. Era honetan, aparatuei analisiak egiten dizkiete, temperatura, bibrazioa, soinua... egokia den edo ez jakiteko. "Aurten, guztira, 15 ikas-

le inguruk parte hartu dute programan. Nagusiki eskualdeko enpresetan aritu dira. Hala, Tubos Reunidos eta Inauxarekin abiatu zuten praktika proiektu hau, baina aurten beste bost enpresa gehitu dira programara. "Helburua benetako kasuak aztertzea da, eta ikasleak motibatzea."

Halaber, mantenimendu prediktiboa Europa mailara hedatzeko elkarlana bilatzen ari da ZARAUBE BHI. Egitasmoari dagokionez, erreferente bihurtzen ari da hezigunea. Orainsu, esaterako, Frantzia izan dira ikastetxeko bat ematen hango ikastetxetara proiektua eta esperientzia azaltzeko.



# · ZARA OBE BHI ·



## LANBIDE HEZIKETA

### OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK



MANTENTZE - LAN  
ELEKTROMEKANIKOA



MENDEKOTASUN  
EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA



MEKANIZAZIOA

### GOI MAILAKO ZIKLOAK



MEKATRONIKA  
INDUSTRIALA

## BATXILERGOA



GIZA ETA GIZARTE  
ZIENTZIAK



ZIENTZIAK

### LANBIDE HEZIKETA

LEHIOA ETA BEGIAK ZABAL-ZABALIK

- Erasmus+ programan parte hartzen dugu, bitartekaririk gabe: Holanda, Austria, Danimarka, Frantzia, Bulgaria, Italia...
- Ingelera indartzeko **aparteko ikastaroa**

HIRUHELEDUN PROGRAMA: Mekatronika industrialeko goi mailako zikloan talde eleanitza dugu

### BATXILERGOA

- Informazio eta Komunikazio **Teknologiak** ikasgelan
- Banakako orientazio akademiko-profesionala
- **EGA azterketa** prestatzeko ikastaroa
- Selektibitatean **emaitza ezinobeak**
- Batxilergo teknologikoa eta lanbide heziketa **elkarlanean**



BIZITZARAKO KOMPETENTZIAK LANTZEN  
PEDAGOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ

IKASI:

- Ikasiz
- Elkarbiziz
- Pertsona izanez
- Komunikatuz
- Emozioak kudeatuz



EKIPAMENDURIK ONENAK

Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba  
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net  
**www.zaraobe.net**



# · Laudio LHUI ·

## LANBIDE HEZIKETAK

### Lanbide Heziketa duala: lan merkaturako atea



Lanbide Heziketa duala duela 3 urte hasi zen ezartzen EAEn eta martxan jarri zenetik bere onarpena etengabe zabaldu da. Programa horretan ikasleak eta enpresak dira onuradun nagusiak, ikastetxean eskaintzen den formakuntza eta enpresan lortzen den espezializazioa oso garrantzitsuak baitira ikasleriaren etorkizunerako.

#### Abantaila ugari

Jorge Arévalo, LHko sailburuordearen iritziz, ekimen horrek enpresa-lehiakortasuna eta kontratazioa hobetzen ditu, "oso emaitza ona ematen ari da. Hala eta guztiz ere, oraindik bide luzea dugu aurretik".

Aurten, EAeko 759 ikasle, 494 enpresa eta 71 ikastetxe ari dira parte hartzen forma-

kuntza eredu berritzaile horretan. Iaz parte hartu zuten ikasleen %70ak ikasketak amaitu eta berehala kontratua lortu zuen; horietatik %90 enpresa berean geratu zirelarik.

### Iaz LH dualeko proiektuetan parte hartu zuten ikasleen %70ak lan kontratua lortu zuten ikasketak amaitzean

Formakuntza mota honen beste abantaila bat da ikasleek lortzen duten esperientzia oso esanguratsua dela.

Gainera, hori erabilgarria zaio enpresari ikaslea kon-

tratatzekorakoan prozesuaren ostean.

LH dualean parte hartzen duten ikasleek soldata eskuratzen dute, Gizarte-Segurantzian alta emanez.

#### Espezializazio handia

Ikasgeletan 1550-1650 ordu ematen dituzte ikasleek. Enpresetan, aldiz, 800-3100 artean. "Beraz, ikasleek lortzen duten prestakuntza erabatekoa da".

Laudioko Lanbide Heziketa Udal-Ikastetxeak, formakuntza mota horren aldeko apustua egin eta arrakasta handiz eraman du aurrera.

Batxilergoan dauden ikasleei biadar desberdinekin eskaintzen zaizkio: unibertsitateko ikasketetara bideratua dagoena eta lanbide-heziketako ikasketena.

#### Aitor Larrea

LHUIko praktiken eta programa dualaren arduraduna

*"Gure helburua ziklo guztietan LH duala ezartzea da"*



#### Zertan datza Lanbide Heziketa dualak?

Ohiko praktikak baino askoz gehiago da. LHko zikloek bi urteko iraupena dute eta ikasleek bigarren mailan enpresa batean aritzen dira urtebetez, ekainetik aurrera.

#### Ikastetxean ere aritzen dira bitartean?

Bai. Irailetik martxora bitartean 2. mailako ohiko klaseak dituztenez, enpresan dauden ordu kopurua murrizten da eta arratsaldez joaten dira lanera, 2-3 orduz.

#### Zeinek parte hartu dezake programan?

Ikasle orok. Enpresa bakoitzak bere eskaintza egiten du eta prest dauden ikasleen artean zerrenda bat osatzen dugu. Enpresak du, hala ere, azkenengo hitza.

#### Zein betebeharrak ditu ikasleak duala egiten duen bitartean?

Ikasle bakoitzari proiektu bat ezartzen zaio, bete beharreko minimo batzuk. LHUI in zein enpresan tutore bana du ikasleak eta hiler bere aurrerapenen balorazioa egiten dute.

#### Zeintzuk dira programaren abantailak ikasleentzat?

Askok! Ikasten duzunaz gain, urtebeteko esperientzia lortzen duzu, eta hori izan ohi da lana lortzerakoan oztoporik handiena. Bestetik, soldata eta kotizazioa jasotzea dago, dagokion langabezia-prestazioarekin. Eta, noski, enpresan lana lortzeko aukera!

#### Zenbat ikasle daude LH dualean?


Aurten hiru ikasle daude LH dualean. Hurrengo urterako 12 enpresen proiektuak ditugu mahai gainean. Gure helburua da gure formakuntza ziklo guztiek programan parte hartzeko aukera izatea.



# · L audio LHUI ·



**L audio Llodio**  
LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO



## LAUDIOKO L.H UDAL IKASTETXEAREN HEZKUNTZA ESKAINTZA

### OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Soldadura

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio-kudeaketa
- Instalazio Elektriko eta Automatikoak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

### BATXILERGOA (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Zuzendaritzari laguntza ematea
- Administrazioa eta Finantzak
- Sistema Elektromekanikoak eta Automatizatuak
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Mekatronika Industrialak
- Fabrikazio mekanikoko Programatzea

### 2016/17KO (AURRE)MATRIKULA EGITEKO DATAK

**Batxilergoko aurrematrikulak:** Maiatzaren 2tik 12ra · **Matrikulak:** Ekainaren 20tik Uztailaren 6ra.  
**Lanbide Zikloetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako aurrematrikulak:** Maiatzaren 23tik ekainaren 3ra  
**Lanbide Zikloetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako matrikulak:** Uztailaren 11tik 15era



Virgen del Carmen, 17 01400 L audio (Araba)  
Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57  
secretaria@cmfp-llodio.com  
web-orria: www.cmfp-llodio.com

**Informazio gehiago:**  
[www.gureskola.net](http://www.gureskola.net)  
Erabiltzailea: [audio.ikasle](http://audio.ikasle.net)  
Pasahitza: [audio.ikasle](http://audio.ikasle.net)



# · Laudio Ikastola ·

## Euskal curriculumuma ardatz hezkuntza eredu berritzailearen alde egiten duen Batxilergoa



Laudio Ikastolak bi batxilergo mota eskaintzen ditu. Batetik, "Zientziak eta Teknologia" modalitatea dago, eta bestetik, "Giza eta Gizarte-Zientziak". D ereduari jarraiki, ikasketa guztiak euskaraz eta goizeko ordutegian egiten dituzte. Alabaina, Batxilergo Eleanitza ikasteko aukera luzatzen diete ikasleei, ohikoan gertatzen ez den bezala frantsesa lantzeko parada ere emanez.

Hala, heziketa ibilbide desberdinak ikaslearen egoera pertsonalari egokitzeko hainbat jarduera garatzen dituzte. Esaterako, orientazioari, garrantzia handia ematen diete, ikasketekin jarraitzeko nola unibertsitatean hala Lanbide Heziketetan dagoen eskaintza ezagutzera emateaz gain, aholkularitza pertsonalizatua eskainiz eta gazteen heldutasuna eta autonomia nabar-

menduz. Horren adibide da, besteak beste, Batxilergoko ikasleei begira urtero antolatzen duten Orientazio Azoka.

### Batxilergo Eleanitzaz gain, gelatik at hainbat jarduera eskaintzen dituzte

#### Teknologia berriak

Bestalde, teknologia berriak baliatzen dituzte irakasgaiak lantzerako orduan. Horretarako areto ezberdinak egokitu ditu azken urteetan Laudio Ikastolak. Ikasleek egunerokoan darabiltzaten materialari dagokionez ere, puntako teknologiak dira nagusi.

Heziketa sisteman dagokionez eredu berritzaileen

aldeko hautua egin du heziguneak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, adibidez, Eki proiektua egitasmoa dute ardatz, euskal curriculumari bide emanez.

#### Gelaz kanpoko ekintzak

Horrez gain, eskolaz kanpoko hainbat ekintza ere antolatzen dituzte. Horien artean daude aisialdiko hezitzaile edo begirale izateko ikastaroa edo EGA titulu eskuratzeko formakuntza saioak.

Laudio Ikastolak inguruko herrietako ikasle ugari jasotzen ditu: Amurrio, Arrankudiaga, Ugao, Zeberio, Orozko... Haatik, garraio eta jantoki zerbitzuak nabarmentzen du hezigunea, janaria egunean bertan eta jantokian prestatzen baitute sukaldariek, dieta orekatuari eta elikagaiei arreta berezia jarritz.

### Gartzene Gastaka eta Aitor Ayesta Batxilergoko ikasleak

*"Guretzako bigarren familia bat da Laudio Ikastola"*



#### Harreman sareak sortu eta sendotzeko hainbat dinamika egiten dituzue. Zeintzuk?

AITOR: DBH 4. mailako ikasleentzako topaketak antolatzen ditugu, egun oso bat irauten duen ekintza da. Amurrio eta Balmasedako ikasleak etortzen dira. Goizean harrera egiten diegu, eta taldeak nahasteko jolas bat egin ondoren herri kirolletan aritzen gara: soka-tiran, eski taulan, piñata-rekin, oihal batekin baloia jaurtitzeko, zaku karreran...

GARTZENE: Helburua elkar ezagutzea da, animatzea. Hamaiketako ere prestatzen dugu.


Irakasleen laguntza ere izaten dugu. Egun polita izaten da, harremanak egiten ditugu, eta gero Instagrametik, whatsappetik... sare sozialetatik jarraitzen dugu ezagutzen.

#### Zergatik aukeratu zenuen Batxilergoa Laudio Ikastolan egitea?

GARTZENE: Txikitatik egon garela Laudio Ikastolan. 18 urte arte hemen egongo gara.

AITOR: Guretzako Laudio Ikastola bigarren familia bat da, hemen sortua.

GARTZENE: Ikasleen eta irakasleen arteko harremana oso gertukoa da, berezia.





# · Laudio Ikastola ·

**HEZITZEKO  
BESTE  
MODU  
BAT**

ANDER, INGE ETA AITOR (16 URTE)  
LAUDIO IKASTOLAKO  
MODA DESFILEAN

ZATOZ GU  
EZAGUTZERA

**BA  
TXI  
LER  
GOA**

INFORMA ZAITEZ!

LAUDIO  
*ikastola*

*www.laudioikastola.eus*





# · Laudio Ikastola ·

## Laudio Txiki: Pikler sistemako 0-2 urtekoen sehaska



Laudio Ikastolako 0-3 zikloa da Laudio Txiki. Ez da edonolakoa, ordea. Izan ere, Budapesteko Lócy eskolako hazkuntza sisteman oinarritutako egiteko eran murgilduta daude, horretarako beharrezko formazioa jaso dutelarik. Hala dio Izaskun Burdiain hezitzaileak.

Hazkuntza proposamenaren oinarrien baitan haurren mugimendu askea, kalitatezko zaintza eta sozializaziorako trantsizio baketsua nabarmentzen dira. Izan ere, haur bat gai da ibili arteko motrizitate guztia bera bakarrik erakitzeko. Era honetan haur seguruak eta bere buruarengan konfiantza dutenak sortzen dituzte.

Kalitatezko zaintzaren baitan jateko uneak, garbitzekoak, lo egitekoak... mimoz, kontuz eta gozo egiten dituzte, haurren eta helduaren arteko lo-

tura une horietan estutu egiten baita. Halaber, ume bakoitzari bere erritmoan eta modu baketsuan uzten diote sozializazioa garatzen.

**Haurrak segurtasuna eta konfiantza irabazteko gela eta jarduerak bereziak dituzte**

### Metodologiaren bilakaera

Lehendabiziko urteetan segurtasuna eta konfiantza landuz gerora estrategiak garatzeko aukera gehiago dituztela umeek uste dute Laudio Txikiko irakasleek. Horregatik, hiru eremu dituzte: Sehaska gela, Katuka Gela eta 2 urtekoena.

“Laudio Txikiko egunero-

koa esplorazioan oinarritzen da”. Horretarako, gelak talde txikietan antolatzen dituzte, eta material zein ontzi ezberdinak haurren eskura jarri. Horien artean daude zopa bolak, gelatina, area, ikastolan bertan egindako tenpera eta plastilina... Laudio Txikiko kidearen esanetan, era horretan, etengabe aritzen dira esperimentatzen haur txikiak.

Hezkuntzako lehen etapen objektuak izaten dituzte oinarri, hau da, desestrukturaturako materiala: ontzi ezberdinak, kortxoak, kutxak... Baita ipuinak, kuxinak, argazki albumak eta abar ere. Hala, haurrek konparaketa, aukeraketa, pilaketa, lerroetan gauzen antolaketa... lantzen dute. Horrek eragin positiboa duela garbi du Izaskun Burdiainek: “Uneoro hipotesi ezberdinak eginez pentsamendua eraikitzen dute”.

## ORDUTEGI ZABALA



## 8 edo 5 orduko eskaintza

Sehaska eta Katuka gela-tan haurrak Ikastolan ematen duen denboraren arabera funtzionamendua dute Laudio Txikin.

Familiek egun osoko jarduna, 8 ordu, eta jardun murriztua, 5 ordu, aukera dezakete

familia eta haurren beharren arabera.

Haurren egonaldia 07:30etik 18:30era bitarteko tartean antolatzeko aukera dute familiek.

Zerbitzuaren kostua erabilpen maila biko hauen arabera ezarrita dago.

## ATE IREKIAK



Laudio Txikiko funtzionamendua, kuotak zerbitzu osagarriak eta bestelako informazioa jasotzeko maiatzaren 6an, ostiralean, atetik jardunaldia antolatuko dute. Interesa duten familiek 17:30etik 20:00etara izan-

go dute lehen eskutik eraketa eta sistema pedagogikoa ezagutu eta bertako profesionalekin hitz egiteko aukera.

Informazio gehiago eskuratzeko 946726737 telefonora dei liteke.



## · Laudio Ikastola ·

# HEZITZEKO BESTE MODU BAT

ZATOZ GURE  
METODOLOGIA  
BERRIA  
EZAGUTZERA

### Bizitzaren lehenengo urteetan erabakitzen da ia guztia

Laudio Ikastolan, hori dela  
eta, haurren garapenerako  
metodologiarik egokienak lantzen  
ahalegintzen gara, esperientzia  
aktiboaren aldeko hautua eginez

IRUDIMENA  
GOXOTASUNA  
JOKO LIBREA  
ENTZUMENA  
EUSKARA  
AUTONOMIA  
ARRETA  
IKUSMINA  
INGELES  
KULTURA  
ELKARLANA

ALAIA  
LAUDIO IKASTOLAKO  
KATUKA GELAN

*esperimentazio  
aktiboa*

**INFORMA ZAITEZ!**

LAUDIO HH1  
*ikastola*  
0-3 urte

**ATE IREKIEN  
EGUNA**

**MAIATZAK 6. OSTIRALA.  
17:30etik 20:00etara**

*www.laudioikastola.eus*



# · erreportajea ·

## TEKNOLOGIEN ERAGINA HAURREN IZAERAN

*Haurrek geroz eta ordu gehiago ematen dituzte pantailei begira. Nolako ondorioak ekar litzake, ordea, entretenimendua teknologiarekin lotzeak?*



Tabletak, telebistak, telefono mugikorrak, ordenagailuak... Ugariak dira gailu teknologikoek entretenimendurako eskaintzen dituzten mezu, irudi edo jolasak. Entrenimendu fabrikek (Internet, bideo-jokoak...) zeharo markatu dute jolasteko, harrimantzeko eta dibertitzeko modua. Ikerketen arabera, Lehen Hezkuntzako haurrek bataz beste, 7.5 ordu ematen dituzte egunean aisialdi birtualari lotuta, etxean %75ak lo gelan du telebista eta %50ak telebista piztuta izaten du otorduetan. Horrek,

komunikazioa inkomunikazio bilakatu du, hitz egiteko tartea murriztuz eta norberaren eta ingurukoaren ezagutza prozesua oztopatuz.

Ez, ordea, hori bakarrik. Jolaserako teknologia apa-

**Jolasa gailu teknologikoetan zentratzeak haurren individualismoa eta adikzioa sortzen ditu, sormena mugatzeaz gainera**

ratuak behar izateak haurren sormen ariketak gutxitzea txikitzea ekarri du, baita desoreka fisiko zein fisiologikoak ere, gizentasuna kasu. Adituen esanetan, arreta ahalmenean ere eragin handia dute gailuek, baita koordinatzeko eta garatzeko gaitasunean ere.

Halaber, izaeraren eraikuntzari dagokionean, jolasa gailu teknologikoetan zentratzeak haurren individualismoa eta adikzioa sortzen duela ohartarazi dute.

Ilido beretik, umeen mugimenduetan, bizitasunean,

ikusmenean, gorputzeko posturretan, jarreretan, erre-

**Ikusmenean, bizitasunean, jarreretan, barneratzen dituzten baloreetan... eragin handia dute pantailei lotutako jokoek**

ferente eta baloreetan... eragin handia dutela ohartarazi dute. Finean, umearen izaeran eta eraikuntzan.

Pantailari lotutako en-

tretenimendua behar baino gehiago baliatzeak haurren adikzioak zein alterazioak ekar litzake, besteak beste, atentzio eta lo arazoak.

Hori dela eta, adituek umeen jolas, sormen, kirol eta lo denbora errespetatu behar dela azpimarratzen dute.

Neurriari dagokionez, gehienez pantaila aurrean bi ordu egotea gomendatzen dute, eta teknologien erabilerari otorduetan, solasaldietan edo familia arazoetan saihesteko.





# UMEENTZAKO APPak

Haur Hezkuntzakoentzat ere badira ikasketa prozesuan lagungarriak izan litezkeen hainbat telefono aplikazio:



## 1. HIZTEGIA LANTZEKO

"Ikasesteka" marrazki eta hitzak lotzeko jolasa



## 2. IPUINAK ENTZUTEKO

"Ipuin klasikoak", "Letra magikoak", "Barbantxo 3D"...



## 3. JOLASTEKO APLIKAZIOAK

"Ikaszopa" denborapasak, Artzain jokoa, "Ekimuki" ibilgailuen jolasa, "Maria Goikoak batbihirulau" puzzle aplikazioa...



## 4. KANTATZEKO EDO MUSIKA ENTZUTEKO

"Kantu liburuxka" aplikazioa, "Badok" euskal musikarien ataria, "Kantari", "Kantu euskaldunak"...



## 5. BALOREETAN HEZTEKO

"Euskal Herriko damak" Euskal Herriko emakume esanguratsuak protagonista dituen dama jokoa, "Porrotx hiztuna"....

# Sakelako aplikazio pedagogikoak euskaraz

Euskaraz ere badira sakelakoetarako aplikazio pedagogikoak. Sakelakoetarako euskarazko programen bilduma app.eus webgunean topa liteke. Horien artean dago "Mitzuli", 50 hizkuntza baino gehiago dituen itzultzaile libre eta erraza. "Ikasega" delakoak, berriz, EGA prestatzeko frogak biltzen ditu, benetako azterketekin. Aisialdian teknologia berriak baliatzeko "Ipuingintza" aplikazioa edo denborapasen "Ikazopa" dira aukeretako beste bi. 0-6 urtekoentzat ere bada eskaintza; "Hitziki" programak, esaterako, euskarazko hiztegia ikasteko aukera luzatzen baitu. "Ikasesteka" aplikazioak, aldiz, ume txikiek marrazkiak hitzekin lotzeko jolasa aurkeztu du oraintsu.

# Tipi Tapa haurreskola

## Amurrio

MATRIKULAZIO EPEA: MAIATZAK 2tik 11ra  
ORDUTEGIA: 07:30 / 17:00  
GELAK: 0-1 URTE: 8 plaza / 1-2 URTE: 13 plaza

"Tipi tapa" haurreskolan Piklerren pedagogia, ikuspuntu ezberdina gure lanan oinarria, haurrenganako jarrerarekin begirada berezia, zainketa uneei eskainiz urregorritzko tartia, samurtasuna handia, lotura ikaragarria, eragurtasuna, denbora eta errespetu guztia motrizitate askeak disdira eta magia umea protagonista umea eta familia.



Arenalde, 5  
01470 Amurrio (Araba)  
945 89 32 59  
tipitapa.amurrio@haurreskolak.eus





# · kontra ·

## JUANJO MARTÍNEZ

*“Hobetzen jarraitzeko kezka izan behar du pertsonak beti”*

Juanjo Martínez ingeniari bilbotarrak 38 urte eman ditu Laudioko Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeko irakasle eta praktiketako arduradun gisa. Maiatzaren 1ean jubilatu zen.



Argazkia: Laudio LHUI

### **Nola eraldatu da LH azken hamarkadetan?**

1983an ikas-ekinezko praktikak sartu zirenean formakuntzak transformazio handia bizi zuen. Modulu profesionalak ziklo deitzen hasi ziren eta teknologia aldetik ere iraultza izan zen. Simuladoreetan egiten ziren lanketak utzi eta benetako makinekin lan egiten hasi ginen. Enpresetan ere praktikak egiten hasi ginen.

**Lanbideak ere aldatu dira.** Bai, hala da, baina gure LH eskakizun berrietara egokitu

da. Azken hamarkadetan enpresetatik gertu ibili gara. Praktikei esker, formakuntzarekiko

**“Ikasleak eta irakasleak aliatuak izan behar dira lan munduratze arrakastatsua lortzeko”**

geneukan ikuspegia asko aldatu zen. Jada ez zen nahikoa titulua lortuta ikasleak agur-

tzea, haiekiko geneukan erantzukizuna ikasketak amaitu ostera ere zabaldu zen. Gaur ere hala da, lan munduan dauden ikasleek askotan jotzen baitute zentrorra hobetzen jarraitzeko.

**Zer eskatzen dute gaurko enpresek ikasleengandik?**

LHn lortzen den formakuntza lan munduan sartzeko nahikoa da, baina gehienek 20 urte inguru dituzte. Zikloan egindakoa hazten jarraitzeko oinarri bat baino ez da.

**Zeintzuk dira formakuntzak gaur dituen erronkak?**

Ikasleak irakaslearen arreta

behar du, beraz, ikasle/irakasle ratioa txikia izan behar da.

**“Ikasleek lortzen duten formakuntza hazten jarraitzeko oinarri bat baino ez da”**

Gainera, ikasleak eta irakasleak aliatuak izan behar dira lan-munduratzeari

tzeko. Arrakastaren gakoak da hori. Irakasleak, gainera, teknologia berrienak izan behar ditu eskura, formakuntza eguneratua eta errealitatearekin bat datorren hori eskaintzeko.

**Nolakoa izan behar da ikaslea arrakasta izateko?**

Etengabeko formakuntza lortzeko eta hobetzen jarraitzeko kezka izan behar du pertsonak beti. Formakuntzaz gain, taldean era eraginkorrean lan egin behar du eta egoera berrietara ondo egokitzen jakin behar du.

# EUSKARAZ

**MATRIKULATU ZAITEZ EUSKARAZ, ZURE ESKU ERE BADAGO**



gai bat jorratuz<sup>(4)</sup>; ama izan nahi ez duten emakumeek jasaten dituzten presioak. Colladoren ustez, emakumeek "instituzio hurbilenetatik" jasotzen dituzte presio horiek. "Familiar, adibidez, etengabe galdetzen zaie emakumeei noiz duten haurdun geratzeko asmoa, eta 'ugalke-tagaraia' pasatzen ari zaiela ohartarazten zaie". Lagunartean ere ematen dirahalakoak. "Lagunartean seme-alabak izatea presio handia da umerik izan nahi ez duenarentzat".

Hala eta guztiz ere, geroz eta gehiago dira ama ez izatea erabakitzen duten emakumeak, eta amen batzuetan besteko adina ere igotzen doa pixkanaka. Amatasunaren kontzeptua, baina, ez da horrenbeste aldatu. Zaintza eta dedikazioan oinarritutako papera izaten jarraitzen du. Datuetan oinarritu du Colladok baieztapen hori: "eszedentzien %97 emakumezkoek eskatzen dute, gizonezkoek %3 baino ez. Figura idealizatu izaten jarraitzen du amarenak".

#### Hiztegi lagungarria


Jazo<sup>(1)</sup>, gertatu / Beta<sup>(2)</sup>, aukera / Afera<sup>(3)</sup>, kontu / Jorratu<sup>(4)</sup>, tratatu



#### Ixone Collado

Gizarte laguntzailea

**"Zaintzari eta dedikazioari lotua dago amaren figura, idealizatua dago oraindik"**



#### Isabel Moreno

Urduñako emagina

**"Emakumearen gorputza prest dago bere kabuz erditze on bat izateko"**



#### Esti Garmendia

Laudioko edoskitze taldea

**"Ama asko bakarrik sentitzen dira erditu ostean, sarerik gabe"**

## ERDITZE NATURALA

# "Etxean erditzea ez da beste aukera batzuk baino hobea edo txarragoa, gure hautua izan da"

MAITE VEGA (Getxo, 1979) eta XABIER ALTUBE (Laudio, 1977) Laudion bizi dira, eta hiru seme-alaba dituzte. Ospitalean izan zuten lehena, baina hurrengo biak etxean jaio dira, gurasoek hala erabakituta.



Hiru seme-alaba dituzte Maite Vegak eta Xabier Altubek. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

#### Zer da erditze naturala? Zer du berezi?

Vega: Niretzako erditze naturala batez ere da medikuntzak ez inbertitzen behar ez denean. Nik erditze prozesua zerbait instintiboa izatea nahi nuen, gorputzak eta umeak behar duten erritmoa jarraitzea, animalia guztiek egiten duten moduan. Horretan sinisten dugu.

Gure lehenengo semea Gurutzetan jaio zen. Esperientzia ona izan zen. Erditze plan batekin joan ginen, eta medikuek oso ondo errespetatu zuten eskatu geniena. Hala ere, ikusi genuen bazeudela hurrengoetarako hobetu zitezkeen gauzatxo batzuk. Ni lasaiago nengoen etxean erditzearen ideiarekin. Etxera datozen emagina batzuekin hitz egin genuen eta horrela hasi ginen prozesuarekin.

#### Zergatik erditu etxean ospitalean erditu ahal badaiteke?

Altube: Askok dira etxean jaio-tzearen abantailak. Guri familia bezala onura pertsonal ugari ekarri dizkigu, eta ugariak dira horrelako prozesuek jendarteari ekarriko lizkiokeen abantailak. Duela urte batzuk agian bai, baina orain ez dugu uste erditze modu bat beste bat baino hobea denik. Hau izan da gurea.

Vega: Laguntzailearen papera

*"Mina etxean zein ospitalean erdituta egon daiteke"*

*"Laguntzailearen papera ere garrantzitsua da etxeko erditzean"*

*"Bakoitzak libreki hautatu ahal izatea zer prozesu bizi nahi duen, hori da erditze naturala"*

ere garrantzitsua da etxeko erditzean. Niretzako hori izan zen laguntzarik handiena: Xabi egotea. Han zegoen bera, kontrakzio bakoitzean laguntzen. Mina pasatzen zenean hurrengo egunerako bazkaria prestatzera joaten zen. Umeak ere inguruan zeuden, jolasten, gosaltzen... Emaginek umeekin jolasten pasatzen zuten denbora; erditzea ondo joanez gero, berez, ez dutelako ezer egin behar.

Altube: Politza da ikustea nola batzuetan ezer ez egitea zela garrantzitsuena. Emaginak sofa-tik behatzera<sup>(1)</sup> mugatzen ziren sarritan<sup>(2)</sup>, eta hori soilik egitearekin Maite lagundua sentitzen zen. Oso polita izan zen ikustea, Izar jaio zenean (goizeko zortziak eta bost minututan), nola zeuden gure beste bi semeak gosaltzen. Maitek bere espazioa izatea eta ni haien alboan egotea altxorra izan da.

#### Egon daiteke etxean erditzea arriskutsuagoa edota mingarriagoa dela pentsatzen duenik. Hala uste duzue zuek?

Vega: Mina etxean zein ospitalean erdituta egon daiteke; bizi duzun egoeraren arabera da. Ospitalean lehen semeaz epiduralik gabe erditu nintzen, eta mina izan nuen. Baina klinika batean zaudenean uhal batzuk jartzen

dizkizute, eta makina bati lotuta zaude. Horrek zaildu egiten du mina kudeatzea. Etxean, berriz, mugitu zaitezke, bainuontzi bat duzu... badituzu baldintza batzuk erditzea erraztu egiten dutenak.

Horregatik guztiagatik, nik ez dut uste etxean min handiagoa sentitzen duzunik. Alderantziz, etxean hobeto kudeatu dezakezu mina.

#### Baina Gizarte Segurantzak ez ditu mota honetako erditzeak babesten.

Altube: Hautu pertsonal eta familiarra izan zen etxean erditzea. Bakoitzak libreki zein prozesu bizi nahi duen hautatzea, hori da niretzat erditze naturala. Politza litzateke ama bakoitzak erabakitzen duen moduan bizi ahal izatea erditzea, etxean edo ospitalean izan.

Gaur egungo errealitatea da oso ama gutxi erabakitzen dutela etxean erditzea, hainbat arrazoi medio. Nire ustez, errespetatu beharreko hautua da hori. Guk diru bat inbertitu behar izan genuen etxean erditzeko hautua egiteko, eta oso harro gaude horretaz. Nik pribilegio bat bezala ikusten dut gaur egun etxean eta familiarrean erditzea.

Vega: Emaginek kontatu izan digute, berez, gastu handiagoa dakarrela ospitalean erditzeak etxean erditzeak baino. Etxean baino askoz material gehiago erabiltzen da klinikan. Etxean erditzearena, beraz, askoz merkeagoa izan ahalko litzatekeen prozesu bat da.

#### Etxean erditzea handiagoa den zerbaiten parte dela uste duzue, ez??

Vega: Hazkuntzaren aferan<sup>(3)</sup> oso murgilduak gaude. Umeak guri gauza asko irakasteko datoz. Eurekin gabilta, etengabe ikasten.

Altube: Komenigarria litzateke erditze naturalaren aldarria jendarte hau pairatzen ari den beste aferan batzuekin lotzea. Sistema ekonomikoaren esklaboak gara gaur egun, eta erditzearen kontua horri kontra egiteko modu bat bezala ikusten dut. Lana bizitzaren azpitik jartzea. Umeekin egotea, umeek disfrutatzea, bizitzaz gozatzea, bere esklabo izan gabe.

#### Hiztegi lagungarria

Behatu<sup>(1)</sup>, ikusi / Sarritan<sup>(2)</sup>, maiz, askotan / Afera<sup>(3)</sup>, kontu



# \_kultura

## PINTURA

### “Gaur egungo paisaiak ez dira koadroetan irudikatzen modukoak”

ANTONIO ALDAMA TEJADAK (Laudio, 1934) bizitza osoa darama oihal zurietan paisaia koloretsuak osatzen. Makina bat erakusketa egin ditu. Azkena, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa. Bere tailerreko ateak ireki dizkigu.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

#### Laurogei urte baino gehiago dituzu, baina ez diozu pintatzeari utzi.

Noski jarraitzen dudala margotzen! Lehen baino askoz gutxiago, baina jarraitzen dut. Lehen bazeuden egunak zeintzuetan 10-12 ordu pasatzen nituen pintatzen. Orain ezin naiz bi orduz jarraian egon, besoak huts egiten didalako. Makil bat erabiltzen dut besoa sostengatzeko.

#### Erritmoa bai, baina zure koardroek jorratzen dituzten gaiak ez dira asko aldatu.

Ez dut gai zehatzik. Denetarik egiten dut nik, bodegoia izan ezik, pintura mota hori ez baitzait inoiz gustatu. Orain dela gutxi Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa itsasadarri buruzko erakusketa bat egin dut, baina baditut Laudio, Bermeo, Delika edota Aiarako koardroak ere (tailerrean dituen koardroak seinatzen ditu). Denetarik dago.

#### Eta eskualdeko paisaia bat aukeratu beharko bazenu, zein hautatuko zenuke?

Laudion bazeuden pintatzeko lauzpabost auzo polit. Gaur egun desagertuak daude.

“Laudion bazeuden margotzeko politikak ziren lauzpabost auzo. Gaur egun, desagertuak daude”

“Dakidan guztia nire kabuz ikasitakoa da, erabat autodidakta naiz”

#### Antzinako diapositibak erabiltzen dituzu koadroak egiteko. Gaur egungo errealitatea ez da koadrotan azaltzeko modukoak?

Gaur egungo paisai gehienak ez dira margotzeko egokiak, ez dute antzinako paisaiek zuten kalitate kromatikoa.

#### Ibilbide luzea egin duzu orain arte. Nola hasi zinen bide hori egiten?

Askotan kontatu izan dut istorio hau. Anai bat daukat, ni baino hamar urte gazteagoa dena. Gabonetan belen batzuk egiten nizkion. Egurrez tailatu eta margotu egiten nituen. Egun batean nire aitaren lagun bat etorri zen, Bilbotik. Belenak ikusi zituenean galdetu zuen: “Nork egin du hau?”. “Nik”, erantzun nion. Margotzeari ekin behar niola esan zidan orduan. Pintatzeko materiala ekarri zidan eta Biarritz tabernaren pareira eraman ninduen. Etxe zahar eta polit batzuk zeuden han. Marrazkiaren zirriborro bat egin eta osatzeko esan zidan. Eta horrela hasi nintzen. Dakidan guztia nire kabuz ikasitakoa da. Erabat autodidakta naiz ni. Etengabe margotuz garatu dut trebetasuna<sup>(1)</sup>.

#### Orditik gaur egun arte bilakaera handia egin duzula uste duzu?

Eboluzio handia izan da, aspektu guztietan. Marraketan nahiko trebea izan naiz beti, eta ez dut arazorik izan. Nire koardroen kolorea, baina, oso ezberdina zen duela biz-

pahiru urte. Begi-lausoen operazio bat egin nuen eta horrek erabat aldatu zuen nire koloreekiko pertzepzioa. Orain askoz argitasun handiagoarekin margotzen dut. Margotzeko gaiak ez ditut inoiz faltan izan. Gai berriak topatzeko berezko sena izan dut.

#### Margolari izango ez bazina zer izango zinatekeela uste duzu?

Zorigaitzoko bat! Pinturak dena eman dit niri, dena da niretzat. Arazoren bat nuenean tailerrera etorri eta berehala desagertzen zitzaidan.

#### Beste erakusketarik egitea duzu buruan?

Erakusketen afera guztia nire suhia<sup>(2)</sup> ari da antolatzen, ez dut nik kontrolatzen. Nik ez dut ia umorerik horrelako kontuekin aritzeko. Ez dakit zenbat erakusketa gehiago egin ahalko ditudan, lurperatzailearen baimenarekin jarraitzen baitut margotzen.

**BIDEOA: Antonio Aldamaren tailerreko bisita**



#### Hiztegi lagungarria

Trebetasuna<sup>(1)</sup>, abilezia / Suhia<sup>(2)</sup>, seme-alabaren bikotea /



Mikel Ayllon IDAZLEA

## \_Kamerinoa

### Gure alde

**B**urumakur heldu da Mari aldagelara. Normalean baino are burumakurrago, esan nahi dut. Ipurdia bere aulkitxoaren gainean erortzen utzi du.

Galdetu beharrik gabe hasi zait kontatzen bere abailduraren arrazoia:

–Ez dakit, Mikel, igual problema nik daukat; igual ez nuke horren erretxina izan behar. Mundu guztiak nahi badu, zergatik ibili behar dut nik beti haize-kontra? Jendea “zer” eta “zenbat” besterik axola ez badio, zergatik hasi behar dut nik beti “nola”, “zergatik”, “zertarako”, “norekin” edo “norentzat” galdetzen? Igual arazoa ni naiz, sinetsita nagoelako merezi dugula kultura sortzeko, kultura ulertzeko, kultura interpretatzeko, kultura ukitzeko, kultura bizitzeko espazio ireki bat eta ez eszenatoki bat eta bostehun butaka, diruak programatutako espektakuluak ikusteko. Igual ni naiz arazoa, pentsatzen dudalako merezi dugula denon amets zatiz eraike daitekeen leku inperfektu bat eta ez hormigoi zati zurrun bat, sekula aterik ixten ez duen leku bat behar dugula eta ez supermerkatu baten ordutegia daukan erakusleho bat. Ez dakit. Igual ez nuke sekula gehiago ahorik ireki behar.

–Ni ere...

Baina ez naiz ausartu ezer esatera. Erratza hartu eta hantxe utzi dut Mari aulkitxoan eserita, burua eskuen artean ezkutatuta, txiki-txiki.





**AIARALDEA**

MAIA-  
TZAK  
23-29

**JAL-  
GI**

EUSKAL  
KULTURAREN  
PLAZA IBILTARIA

**ANIMAZIOA**

**BATUKADA**

**PORROTX**

BURUHANDIAK

+ ERRALDOIAK

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**PIKADERO**

FILM LABURRAK

**KATIXA AGIRRE**

ESTI URRESOLA

**IRATXE FRESNEDA:**

NIRE 12 SEKUENTZIA KUTTUNAK

**ASIER ALTUNA:**

ATZERA BEGIRAKOA

**LABURBIRA**

**ARTE PLASTIKOAK**

**EIDER EIBAR**

**IRANTZU LEKUE**

**CARLOS VARELA**

IPAR HAIZEAREN ERRONKAK  
GORKA BELASCO

EUSKAL KULTUR  
SORKUNTZAREN  
KOMUNIKAZIOARI ETA  
TRANSMISIOARI BURUZKO  
JARDUNALDIAK

**AMURRIO**

MAIATZAK 26 ETA 27

[jalgika.eus](http://jalgika.eus)

**MUSIKA**

MIKEL URAKEN

**JOSEBA TAPIA**

+ IÑAKI PLAZA

HIP HOPA

**JUAN MARI BELTRAN**

FITA FIK

**HALA DZIPO**

**ERASO!**

GALDER IZAGIRRE:

ABELTXURIAK

**XABI SOLANO**

XILIPURDI HAUR BERBENA

**RUPER ORDORIKA**

+ IGOR ARZUAGA

**HESIAN AKUSTIKOA**

IGON OLAGUENAGA

ODEI BARROSO + IÑAKI VIÑASPRE

ULUKA

**GORKA URBIZU**

AGUXTIN ALKHAT

**ANARI**

**DANTZA**

**OIER ARAOLAZA**

**AIKO DANTZA PLAZA**

**PANTXIKA TELLERIA**

**ELIRALE**

**LITERATURA**

**YOLANDA ARRIETA**

MAITE FRANKO

PATXI ZUBIZARRETA

**MIKEL AYLLON**

+ IGOR ARZUAGA

MARA FEAT MILAY

MATEO METEO

**BERTSOLARITZA**

**MIREN AMURIZA**

KAPULANA BAT ZINTZILIK

**ANTZERKIA**

**HIKA TEATROA:**

KOADERNO ZURIA

**ANODINO TEATROA**

ZERURA ERORIA

**PABLO IBARLUZEA**

ESPERIENTZIXAK

MEDIAZIOAK

**INPROTXOW**

BAPATEAN ZIRKO

KALE ORROKA

**METROKOADROKA**

**XALBADOR**

"IZANA ETA IZENA"

**ANDONI EGAÑA + ASIER RUBIO**

BERTSOLARITZA IKASTETXEETAN

**GARAI HURA GARA**

(ANDONI EGAÑA ETA XABIER LIZASO)

IÑAKI VIÑASPRE, ODEI

BARROSO, SERAPIO LOPEZ,

IZAR MENDIGUREN, OHIANE

PEREA, JON MAIA

**BERTSOLHARITZA**

IBAI ESOAIN


**ANTOLATZAILEAK**



**BABESLEAK**



**LAGUNTZAILEAK**





# kirola

## SASKIBALOIA

### “Lehenengo mailara igotzeko borrokan ibili gara denbora luzez; ez da bide erraza izan”

SORAYA JIMÉNEZ (Amurrio, 1996) eta ÁLVARO CASAS (Amurrio, 1988) Zaraobe saskibaloi taldeko emakume seniorren pibota eta entrenatzailea dira. Irailetik aurrera arituko da taldea, aurrenekoz, lehenengo mailan.

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate Astobiza

#### Nola ikusi zenuten zuen burua ligako azkenengo partidari?

Casas: Gasteizko Presentación de María taldearen aurkako partida izan zen. Talde hori zen, hasiera batean, zailenetariko. Banakako defentsan presioa egiten dute, fondotik. Hasieratik amaierara arte menderatu genuen, bagenekien haien defentsari nola eraso egin, baloia mugitzen. Partidan nagusi izan ginen. 15 puntuko aldearekin hasi ginen, gero 25 eta 30 puntuko aldea ere lortu genuen. Beherakada izan genuen, baina 25 puntuko aldea mantendu genuen eta horrela etorri zen garaipena.

#### Liga irabazi eta kategoriaz igo zarete. Ondo ospatuko zenuten!

Jiménez: Bai. Amaieran talde argazki bat atera genuen, eta gurasoekin beste bat. Aldageletara joan ginenean ekipajekin eta guzti busti ginen, dutxetara sartu ginen, eta gero entrenatzaileak ere sartu ziren xanpainarekin! Oso ondo pasatu genuen, argazki piloa atera genituen, bideoak ere. Oso polita izan zen. Azken partida ere lehenengo momentutik menderatu genuen. 30 puntuko aldea<sup>(1)</sup> ere lortu genuen.

“Zaleak harmailetan egon dira topera animatzen; turutekin, bonboekin, tronpetekin, zarata topera egiten!”

“Hurrengo urtean taldea aurrera ateratzeko jendea behar dugu”

#### Nolakoa izan da garaipen hori lortzeko bidea?

Jiménez: Ez da erraza izan. Azken finean, taldean gutxi gara eta nabaritzen da entrenamenduetan. Gainera, beste taldeek ere lehenengo mailara igo nahi zuten. Borrokan ibili gara denbora luzez.

#### Udako geldinearen ondoren, nola ikusten duzue hurrengo denboraldia?

Casas: Ilusioarekin, baina fitxaketak egin behar ditugu. Lan egiteko gogoia duten pertsonak behar ditugu, kirola egiteko gogotsu daudenak. Taldea aurrera ateratzeko jendea behar dugu. Gutxienez zortzi pertsona behar ditugu. Taldekideetako baten bat kanpora joango da ikastera eta taldea txikitu egingo da. Beraz, beharbada, ezingo dugu taldea aurrera atera. Fitxaketak behar ditugu. Bidea ez da erraza izango.

#### Zaleen berotasuna gertu izan duzue.

Casas: Eskerrak jokalariei, beste talde batzuetako entrenatzaileei, klubei beste jokalariei... hemen, harmailetan<sup>(2)</sup> egon direlako, etxean topera animatzen.

Turutekin, bonboe-

kin, tronpetekin, zarata topera egiten, aurkako taldeak jaurtiketa libre bat egin behar zuten bakoitzean zarata eginez huts egin zezan eta guri saskiratzeak lortzen laguntzen. Horregatik guztiagatik, mila esker euren.

#### Nola baloratzen duzue, orokorrean, taldeak egindako lana?

Casas: Nire aldetik oso positiboa izan da. Batzuetan, azterketengatik, lau bakarrik etortzen ziren entrenatzera. Baina ehuneko ehuneko entrenatu dugu, partidari begirako gauzak lantzen. Oso positiboki baloratzen dugu, beraz.

Jiménez: Bai, oso positiboa izan da. Entrenamenduetara etorri gara ahal izan dugun guztietan, eta mutilekin entrenatzen ere asko ikasi dugu. Nagusiagoak dira eta indar handiagoa dute eta haiekin entrenatzean asko ikasten dugu.

#### Noiz entrenatzen duzue?

Jiménez: Astero entrenatzen dugu. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, ordu eta erdiz. Batzuetan guk bakarrik eta beste batzuetan mutilen taldearekin.

#### Denboraldi berriari begira, beraz, fitxaketa berriak egin behar dituzue.

Jiménez: Bai, bilatzen ditugu. Beste gauza bat da lortzea. Izan ere, ikasketekin eta lanarekin zaila da. Entrenatzeko denbora izatea ez da erraza.

Casas: Bai, aprobetxatu nahi dugu jendeari esateko etor daitetzela gurekin jokatzera, gogotsu, lan egin eta ikasteko gogoekin. Esan bezala, jendea behar dugu taldea aurrera ateratzeko. Gure kategoria zorrotza da eta horretan jokatzeko gogoak behar ditugu. Hurrengo urtean taldea aurrera ateratzeko jendea behar dugu.

**BIDEOA:**  
Zaraobe Saskibaloi taldeari elkarrizketa



#### Hiztegi lagungarria

Aldea<sup>(1)</sup>, diferentzia / Harmailetan<sup>(2)</sup>, ikusleak esertzeko tokiak

## KOMUNITATEA

### Garaitu gabeko taldea izaten jarraitzen du CD Urduñak



Bizkaiko kopako irabazleak izan arren, Urduñako neskek Ibarsusira bidaiatu zuten partida irabazteko asmoz. Etxeko taldea markagailuan aurreratzea lortu zuen hamaikagarren minutuan, Ekiñek korner baten ondorioz bere atean gola sartu baitzuen. Hala ere, gorritxoek ez zituzten besoak jaitsi, eta hainbat minutu geroago Maitanek berdinketaren gola gauzatu zuen, area kanpotik egindako jaurtiketa baten ostean. Tierryk zuzendutako taldea baloiaz jabetu zen eta atsedenaldira joan aurretik Txitik atzelariak abiadura biziz atzean utzi eta gero, atezaina driblatu zuen eta markagailuko bigarren gola eskuratu zuen horrela. Bigarren zatian partida apur bat berdindu zen nahiz eta gorritxoek aldetik arriskua egon. Dena den, Urduñakoek ez zuten arazorik izan eta markagailua 1-2 geratu zen.

Urduña garaitu gabeko taldea izaten jarraitzen du Bizkaiko kopa bukatzeko partida bakarra geratzen denean.

### Nerea Monasterio Espainiako txapelkunorde oinarrizko gazteetan



Aresketa Taldeko oinarrizko gazte gimnastak Banakako Espainiako Oinarrizko Txapelketan lehiatu ziren iragan ostiralean, Gijonen. Nerea Monasteriok ariketa bikaina egin zuen eta bigarren postua eskuratu zuen. Irene Esparza ere bertan aritu zen eta 72. postuan sailkatu zen. 178 gimnasta egon ziren guztira.

**•info:** Argitaratu zure kirol taldeari buruzko edukiak aiaraldea.eus-eko komunitatearen leihoan





# \_kirola

## TXIRRINDULARITZA

### Festa eta kirola uztartuko ditu Gualdetxu MBTk antolatutako Gau Martxak, Otxomaioetan



Trail modalitatea gehitu diote gaueko BTT martxari. / aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide Etxeberria

Gualdetxu MBT Taldeak "Urduña Hiria Gau Martxa" prestatu du laugarren urtez. Hilaren 14an izango da proba, Otxomaio jaien baitan.


Ekimen berezia egiteko asmoz eta, bide batez, jaiaz beste moduz gozatzea dagoela erakusteko sortu zen lasterketa, eta dagoeneko ederto erakutsi dute, urterik urtera gero eta jende gehiago animatzen delako parte hartzen. Aurten ere

hiru ibilbide izango dira hirian hasi eta Larruazabaleko basabideetan barrena: bi mendiko bizikletan ibiltzekoak (29 km eta 17 km), eta beste bat korrika egitekoa (12,5 km).

Denak abiatuko dira Foru plazatik 22:00etan eta parte-hartzaile guztiek aurreko linterna eta mugikorra eraman beharko dute, bai eta kaskoa eta atzeko argi gorria bizikletan doazenez.



"BERDINTASUNAGATIK BORROKAN" JARDUNALDIAK: Laudioko emakume kirolarien ikusgarritasuna sustatzeko egunoko jardunaldiak antolatu zituen Altzarrate Kirol Elkartek larunbatean. Herriko hainbat kirol taldek hartu zuten parte ekimenean. Argazkia: aiaraldea.eus



AIARAKOI. DUATLOIA: Aiarako lehen duatloia egin zuten iraganigandean Arespalditzan, San Prudentzio jaietan. Iñaki eta Josu Isasi anaiek lortu zuten lehen postua, gainontzeko parte hartzaileei zortzi minutuko alde ateraz. Argazkia: Iñaki Isasi Taldea.

## BORROKA ARTEAK

### Aratz Garmendiak brontzezko domina lortu du Espainiako Full Contact Txapelketan

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Brontzezko domina lortu zuen Aratz Garmendiak Espainiako Full Contact Txapelketan, Salamancan, hain zuzen.

Hiru borroka izan zituen Okondoko borrokalariak eta indartsu hasi zuen lehiaketa. Izan ere, 40 segundutan KO bitartez gailendu zen. Finalerdietan, ordea, puntuetan galdu zuen. 71 kilo azpiko kategorian aritu zen kirolaria eta nahiz eta domina etxera ekarri, ez da oso pozik geratu. Aitortu duenez, lehia gogorrena finalerdikoa izan zen. Gainera, iaz 2. postuan bukatu zuen.



Aratz Garmendia. / aiaraldea.eus

## MENDI-TXIRRINDULARITZA

### Julen Latorrek 2. postua lortu du Erandioko lasterketan



ERREDAKZIOA |

Julen Latorre txirrindulariak espero baino emaitza hobekak lortu zituen Erandioko mendi txirrindulari lasterketan. 23 urte azpiko kategorian 2. postua eskuratu zuen eta elite kategorian seigarrena izan zen.

# 2016

## Maiatzak 15

# San Isidro

## Aiara

**14**  
12:00 BOLO-JOKOA KEXAAKO BOLATOKIAN. Antolatzailea "Aiarako Bolatoki Kluba"

12:00-13:00 / 18:00-20:00 Kexaako bolatokian |

**15**  
08:00 PIRINIOETAKO BEHI-AZIENDA HALITATUAREN ARABAKO II. LEHIAKETA

08:00 -10:00 Abereak jasotzea |  
10:00 -11:00 Abereei azterketa egitea |  
11:00 -13:00 Abereak kalifikatzea |  
13:30 Sari banaketa |

09:30 NEKAZARITZA ELIKAGAIK, ARTISAUTZA, ETA NEKAZARITZA MAKINARIAREN ERAKUSKETA

10:30 ARDI, AHUNTZ, ASTO ETA ZALDI ERAKUSKETA

Gainera, eskualdeko bertako oiloen, makilen eta untxi erraldoien erakusketak egongo da |

11:00 UMEENTZAKO TAILERRAK ETA PUZGARRIAK

11:00 -12:30 Artile tailerra Arespalditzako gizarte etxean |

12:30 - 14:00 Talo tailerra Arespalditzako gizarte etxean |

12:00 MEZA SANTUA

13:00 TOKIKO PRODUKTUAK DASTATZEA (GAZTA ETA TXAKOLINA)

Gainera, "El Toboso" eta "El Antojo" tabernetan tokiko produktuekin egindako pintxoak dastatu ahal izango dira |

13:30 HERRI - KIROL EN ERAKUSTALDIA

Egunean zehar, tokiko musika entzungo da

12:00 TXAKOLIN ETA GAZTA DASTAKETAK

Katak Arespalditzako gizarte etxean egingo dira (izena ematea txosnan, 1€)/

-1. Kata — 12:00  
-2. Kata — 13:00













# \_Herriko plaza

## \_agurrak



**Asier**  
Zorionak Asier, zure lagunentzako partetik. Ea noiz joaten garen arrantza egitera!

Lagunak



**Markel / Igone**  
Zorionak arrankudiagarrei Lau-dioko lehengusu eta senideon partez!!

Etxekoak



**Itziar / Paule**  
Ugartekoen partez zorionak be-launaldi berriko nagusi zein txikiari!!

Senideak



**\_Argitaratu zuk zeuk zorion-agurrak aiaraldea.eus atarian, nahierara!**

**Zorion-agurrentzako txoko berezia prestatu dugu sarean. Erabili nahi? Egin zaitez aiaraldea.eus atariko komunitateko erabiltzaile eta argitaratu maite dituzun horientzako zorion agurrak nahi duzunean eta nahierara! Guk sare sozialen bidez zabalduko dugu!**

## \_denborapasak

	Ondorioa	Erabat	IZENA	Kalteak jasan dituenak
	Kalkuak	Arabako herri bateko	Egile atzizkia	
Egokiera, parda	Bildotsa		Alkoholen bukaera	
Dituk	Ematen du Printze arabiar	Leherkari ezaguna	Bokala	
DEITURA	Arkuaren erdian	Bokala mehea	Bokala	
Eskumutur		Norat atzizkia		
Ezeztatzeko		Bezainbeste		
Idazteko artea	Iridioa	Izen arabiar	Uranioa	
	Bih, garau	Kontsonantea	Zezen zikiratu	
Karrika		Saudi Arabiako hirib.		Lehenengo bokala
		Musika nota		
Suari dariona		Sam du osaba		

◆ Kirolari laudioarra.

### ERRAZA

		2		5	6
2	5		4	9	7
	8		7	6	9
			7	2	3
7		3		8	9
			5		7
8			3		4
	7		5		
	4	6		8	7

### ZAILA

				3		9
			4	2		7
3	9		8			
9	3	4			7	2
						5
		1		5		8
	3	7			8	
6	8	7	2		3	4
	2		3		6	9

## \_horoskopoa



### TARTALO

01.20 - 02.18

Zure urtebetetzean lagun asko faltan izan dituzu? Benetako lagunak ez al dizute urrunetik euren sentimenduak adierazi? Ziur baitez! Argi eduki zein ondo ospatuko dituzun urteak zure bueltan, zure zain egongo dira hemengoak!



### HERENSUGE

03.21-04.20

Ez zara inoiz konformatzen. Asetze falta horrekin gauza handiak lortuko dituzu. Hala ere, orain daukazuna baloratzen ikasi beharko zenuke. Esfortzu guztien osteko saria ospatzen ikasi behar da. Meritu handia da orain arte lortu duzuna!



### BASAJAUN

05.21 - 06.20

Zure lurra zein den ahaztu al duzu? Bidaiak antolatzen dituzun bakoitzean beti atzerrira joateko joera daukazu. Ezagutzen al dituzu Euskal Herriko txoko berezi guztiak? Ziur ezetz, asteburuko planak ere ez daude gaizki, probatu!



### GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Kontuz ibili bide okerretik eraman zaitzaketen erabakiekin. Polita da orain sentitzen ari zarena baina kontu handiarekin ibili beharko zenuke, zure kontra egin dezake eta. Ez hitz politei bakarrik kasu egin, ekintzak dira errealitatea islatzen dutena.



### AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Tira, ez da zure unerik onena baina orain zaila dena gero errazagoa izango da, garai honetan gauza asko ikasiko dituzu, zure burua lasaitu eta ondo antolatzen, adibidez. Ez izan beldurrik zailtasunei, oztopoak gaudituko dituzu!



### ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Zoragarria etxeko tximinia berria? Zergatik ez etxe berriak eskaintzen dizun plazerez gozatu eta lagunei afari gozo bat prestatu? Urrun dago zure urtebetzea. Baina zergatik ez ospatu egun eder hori orain?



### GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

San Prudentzio pozik egongo litzateke zurekin! Danborra jo bai, baina ikasketetan eta etxean lan neketsua egiten zabilta. Danbor-jolea baino, etxeko buru-jolea zara! azkenean maite dituzunak nazkatu eta orain eskaintzen dituzten laguntza galduko duzu!



### LAMIA

04.21 - 05.20

Zeinek esan zizun bizikidetzaren erraza zenik? Gaizki pasatzen ari zara bestearen ohitura txarrak jasaten ez dituzulako baina beti bestearen akatsak ikusteko joera daukazu. Burugogorrek gara eta gureak ezin ditugu ikusi, normalean da hasiera zaila izatea, lasai egon!



### BASANDERE

06.21 - 07.20

Beldurrik kikitzen zaitu, izuak izua elikatzen du. Baina ikara gainditen dugun ueña ez al da atsegina? Gure burua ausart ikusten dugunean egoerei aurre egiten ikasten dugu eta horrek onurak dakartza, beldurrik txikitzen ikasten dugulako.



### JENTILAK

08.22 - 09.22

Iragana aldaezina da eta geroa misterio bat, oraina ez al da nahikoa zuretzat? Gauero aztertu ezazu egunean bizi izandako guztia eta momentu onak gogoratu. Izan ere, ez al da bizitzako helburu garrantzitsu bat eguneroko zoriontasun apur bat irabaztea?



### MARI

10.23 - 11.22

Liluratuta zaitu pertsona berri horrek. Liluratuta egotea polita da, baina lilura ez da beti maitasunaren seinale. Pixkanaka hazten doan sentimendua da maitasuna, kontuz ibili liluraren efektuarekin, orain ametsa dena gero sufrimendua izan daiteke eta.



### SUGAAR

12.20 - 01.19

Zure burua maitatzeko ueña heldu da. Heldu da zure buruan bakarrik pentsatzeko momentua. Ez lagundu besteak zoriontasun izaten eta egin behar duzun guztia. Inork ez dio zure buruari zuk eman ahal diozun adina emango. Saiatu!

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>





## \_irakurlearen txokoa

## \_agenda

**05.03  
ASTEARTEA**

09:30 AMURRIO  
**IKASTAROA**  
"Ondo konpontzen naiz nire bankuarekin"  
Refor enpresaldea

12:00 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Andere Abesbatzaren kontzertua eta luntxa  
Gardea

17:30 ARTZINIEGA  
**UMEENTZAKO AISIALDIA**  
Ipuin kontalaria  
Liburutegia

19:30 LAUDIO  
**LIBURU AURKEZPENA**  
"Kamaradak", Joxe Iriarte  
"Bikila"  
Basalarrina

**05.04  
ASTEAZKENA**

09:30 AMURRIO  
**IKASTAROA**  
"Ondo konpontzen naiz nire bankuarekin"  
Refor enpresaldea

09:30 LAUDIO  
**IKASTAROA**  
"BEZa kudeatzea atzerriko erosketa edo salmentan"  
Tokiko Garapen Agentzia

16:45 LAUDIO  
**HITZALDIA**  
Medikazioa eta automedikazioa  
Kultura Etxea

**05.05  
OSTEGUNA**

09:00 LAUDIO  
**IKASTAROA**  
Bideoen sorkuntza eta edizioa WeVideo erabilita  
Tokiko Garapen Agentzia

18:30 AMURRIO  
**SARI BANAKETA**  
Zaraobe Institutuko XXI. Literatura Lehiaketa  
Amurrio Antzokia

**05.06  
OSTIRALA****OTXOMAIOAK**

**05.06 OSTIRALA**  
20:00 Kartel lehiaketako sari banaketa  
20:30 Kalejira  
20:30 Photocall parekidea  
21:00 Txupinazoa  
21:00 TTeK elektrotzaranga  
22:00 Pilota partidak  
22:30 ETS eta Ingo Al Deu

17:30 ARTZINIEGA  
**TAILERRA**  
Nire lehen ipuina Scratcharekin  
Liburutegia

17:30 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Bola txapelketak  
Bolatokia

19:00 LAUDIO  
**KONTZERTUA**  
Mara Mara  
Lanbide Heziketa

**05.07  
LARUNBATA**

09:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Haurren XVII. arrantza lehiaketa  
Gamako Lakua

10:30 LAUDIO  
**GALIZIAR LETREN JAIA**  
Umeen marrazki lehiaketa  
Galiziar Etxea

11:00 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Bola txapelketa  
Bolatokia

10:30 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
IX. Patata tortilla lehiaketa  
Foru Plaza

11:00 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Umeen parkea eta makilaje tailerra  
Gardeako Kultur Etxea

12:00 OROZKO  
**GURE ESKU DAGO**  
Ehiza Plazara  
Zubiaur Plaza

12:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Santa Zezilia musika bandaren kalejira  
Herrigunea

12:45 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Euskal dantza eta musika ikuskizuna  
Foru Plaza

13:00 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Kalejira

**KULTUR ARTEKO  
ZUBIAK**

**05.07 LARUNBATA**  
14:00 Herri bazkaria  
16:00 Dantza tailerra  
17:00 Kulturarteko azoka  
18:00 Diskodantza eta txokolate jana  
21:00 Zinema kalean: "Hotel Marigold"

Bide Zaharra  
16:30 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Buruhandien kalejira Galtzagorri taldearekin  
Gardea

17:00 URDUÑA  
**OTXOMAIO JAIK**  
Umeen Taekwondo erakustaldia  
Frontoia

17:30 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
"Nada es lo que parece" umeentzako ikuskizuna  
Gardea

18:00 LAUDIO  
**SORGIN ZAPATUAK**  
Diskodantza eta txokolatada  
Aldai Plazako karpa

18:30 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
II. Zumba Master Class  
Foru Plaza

19:00 LAUDIO  
**GALIZIAR LETRAK**  
Manuel María omenduaren Xosé Estévez hitzaldia  
Galiziar Etxea

19:15 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
DJ Xaibor  
Kiroldegiko aparkalekuan

21:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Hotza taldearen kontzertua  
Foru Plaza

22:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Gorrotz Haziak, K.O. Etiliko, Zirkiñik Bez!  
Gaztetxea

01:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Remember Night DJ  
Foru Plaza

**05.08  
IGANDEA**

09:30 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Kalejira Lankaletako txistulariekin  
Gardea

11:00 LAUDIO  
**IKASTAROA**  
Umeentzako masajeak  
Kultur Etxea

12:00 LAUDIO  
**GARDEAKO JAIK**  
Dantza emanaldia Kilkerrak taldearekin  
Gardea

12:30 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Buruhandien kalejira  
Herrigunea

17:00 SOXO  
**IGANDE ARRATSALDEAK**  
FAMILIAN  
Ipuin kontalaria, askaria eta eskulan tailerra  
Kontzeju Etxea

17:30 OROZKO  
**BERTSOLARITZA**  
Bizkaiko Txapelketako kanporaketa  
Donibane Aretoa

18:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Emakumeen kategoriako zaldi probak  
Foru Plaza

19:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Koadrilen arteko herri kirolak  
Foru Plaza

20:30 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Berbena Kosmos taldearekin  
Foru Plaza

**05.09  
ASTELEHENA**

11:00 URDUÑA  
**OTXOMAIOAK**  
Umeen eguna  
Gernika Plaza

**05.11  
ASTEAZKENA**

17:00 LAUDIO  
**HITZALDIA**  
Asmaren inguruko informazio saioa  
Erabilera anitzeko udal aretoa

19:00 LAUDIO  
**HITZALDIA**  
Joseba Permach eta Juanjo Basterraren eskutik  
Gure Aukera

18:40 ARTZINIEGA  
**OPERA**  
"Il barbiere di Siviglia" lanaren entsegu orokorra ikusiko dute Euskalduna Jauregiaren Udaletxea (25/35 euro)

**ZINEMA****05.07 LARUNBATA**

"EL LIBRO DE LA SELVA"  
LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:30ean  
(3 €)

**05.08 IGANDEA**

"EL INVENTOR DE JUEGOS"  
AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean  
(3,60 €)

"EL PREGON"  
AMURRIOKO ANTZOKIA 19:30  
(4,80€)

**05.09 ASTELEHENA**

"EL PREGÓN"  
AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan  
(3,60 €)

**05.14 LARUNBATA**

"LA CHICA DANESA"  
LHUI 17:30ean eta 20:00etan  
(3 €)

**05.15 IGANDEA**

"EL RECUERDO DE MARNIE"  
AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean  
(3,60 €)

**05.16 ASTELEHENA**

"KIKI, EL AMOR SE HACE"  
AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan  
(3,60 €)

**etxaurre**  
higiezin agentzia

**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 169.500 € (15.000 € BEHERATUTA!)  
67 m<sup>2</sup>, 2 Logela (Logela Printzipala Jantzigelarekin), Sukalde Amariarra, hidromasaje dutxa, balkoia, igogailua, eraberritua, domotika, altzariekin.  
Erref.: 167.607



**ETXEA SALGAI OKONDON**  
Prezioa: 298.000 €  
280 m<sup>2</sup>, 3 solairu, 3 gela, 3 bainuge, sukaldea, egongela tximiniarekin, barbakoa, garajea, txokoa, terraza, 200 m<sup>2</sup>-kolorategia, egoera bikaina.  
Erref.: 167.702

**PISUA SALGAI ARTZENIEGAN**  
Prezioa: 155.000 €  
67 m<sup>2</sup>, 3 gela, sukaldea eraberritua, balkoiarekin, egongela, bainugela, kanporatutako hornitua, negoziagarria.  
Erref.: 167.701

**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 120.000 €  
70 m<sup>2</sup>, 3 gela, bainugela, sukaldea eraberrituko, egongela balkoiarekin, igogailua proiektuan, kanpoaldera, negoziagarria.  
Erref.: 167.699

**DUPLEXA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 260.000 € (20.000 € BEHERATUTA!)  
111 m<sup>2</sup>, 3 Gela, 2 Bainugela, Sukalde Berria, Egongela Balkoia, Garaje Itxia 38 m<sup>2</sup>, Prezioaren Barne, Negoziagar bikaina.  
Erref.: 160.351



**PISUA SALGAI LUJIAONDON**  
Prezioa: kontsultatzeke  
90 m<sup>2</sup>, 3 gela, 2 bainugela, komuna, sukaldea, egongela, terraza lorategiarekin, trastelekua, garajea, igogailua, kanpoaldera.  
Erref.: 167.478

**www.etxaurre.com**  
946 72 85 50

## \_ezin galdu



**JALGI EKIMENAREN AURKEZPENA:** Jalgi kultura ekimenaren aurkezpen publikoa eta prentsaurrekoa egingo dute datorren maiatzaren 4an, asteazkena, Audioko Lamuza Frontoian. Ez da aurkezpen hutsa izango, musika, mokaduak edota solasaldiak ere egingo baitira.



**OPERA:** Artzniegako Udalak txangoa antolatu du Euskalduna jauregira "Il barbiere di Siviglia" lana ikusteko. Entsegu orokorra egingo dute eta autobusa 18:40an aterako da udaletxetik. Herrian erroldatuta daudenek 25€ ordainduko dute eta gainerakoek 35€.



# \_kontra

aiaraldea.eus



Itziar  
Urkijo Cela  
PSIKOPEDAGOGOIA

## \_Leihotik

Mizar izarra

eku berezia da espazioa, bitxia. Aukeraz betetako tokia, txikitasuna handitasun bilakatzen den gunea. Bertara joatearen ekin-tza sinpleak gizakiaren izate hutsari 5-10zm gehitzen dizkio eta izarra noizbait batera mugitzen dira, konpas elegante bati so eginez.

Mota askotako izarra dauka baina hauek, bitarrak, gutxienekoak dira, bereziak, espazioa bezala. Mizar izan zen lehen, bikotetzat daukan Alcorrenkin batera eta geroztik, dantzan ematen dute existentzia. Urrutitik ikusiz gero, batera daudela esango genuke, baina gerturatzean, haien arteko distantzia nabaria antzemango genuke, elkar hurbiltzearen beldur izango bailiran.

Izar bitar guztietan ematen den ezaugarri propioa da dinamika altruista; bietatik batek distira soberan izanik ahulagoa den kideari islatzen dio argi propioa. Horrela izan beharko litzateke beti. Gure existentziaren momentu konkretu batean izar bitar bilakatzen gara eta pentsatzea gustatzen zait, azken finean izar batek esan bezala, inor ez da betirako bizi ezta betirako hiltzen ere.

## Ainara Gotxi

# “El conquistador” saioa muntaia hutsa da, ez da inoiz partaideen alde ona ikusten”

AINARA GOTXIK (Aiara, 1986) “El conquistador del fin de mundo” telebista saioan parte hartu du. Lehiaketatik kanporatu berri dute, baina “lehiakide kuttunenaren saria” irabazi dezake oraindik, ikusleen botoei esker.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

### Zer moduz esperientzia?

Asko gustatu zait, esperientzia bakarra da, bihotzez jarrailu eta bizi beharrekoa. Ez baduzu horrela bizitzen oso gogorra da. Nire ustez, “El conquistador” saiora bazoaz, buruz oso sendo egon behar duzu. Gorputza goseratzen da egunak aurrera egin ahala, baina buruz ez bazaude ondo, ezinezkoa da aurrera egitea.

### Harreman oso ona izan duzu kide orekin. Zer da zure izarra edo estrategia?

Nire izaera da, ezagutzen nauenak badaki horrelakoa naizela. Bertan “amatxi” titulua eman zidaten.

Hamar pertsonako taldea osatzen genuen eta zaila da guztiarekin harreman ona izatea, baina nik izan dut. Horrelakoa naiz.

### Oihanean egin duzu lehiaketa osoa, gogorra izan da?

Bai, baina oihanetik ateratzen

ginenean beroa itogarria zen. Bestalde, kanpamentu aberatsen sekulako anakondak ikusi ditugu, izugarriak.

Pixa edo kaka egiteko ipurdia ateratzen genuen baina ez ginen jaisten. Oso arriskutsua zen; eskorpioiak, anakondak, pirañak... Tximino txiki ugari ere bazeuden eta gauzak botatzen zizkiguten.

### Basoa al zen gauzarik txarrena?

Amazonaseko ura marroia zen eta ez genuen ezer ikusten. Anakonda bat alboan egon zitekeen. Ura beroa da eta kaka gainezka dago, baina horrik edan behar genuen derrigorrez, bestela deshidratatzen ginen. Nik buruan neukan edateko edo jateko jartzen zidaten guztia hartzeko gai izan behar nintzela.

### Ikusten duzunean telebistan ematen dutena, zer pentsatzen duzu?

Asko moztzen eta itsasten dute. Esaldi bat beste batekin

lotzen dute eta eztabaida batean zu bakarrik ikusarazten zaituzte... muntaia handia egiten dute, baina horrela betetzen dute euren lana.

Nirekin ondo portatu dira eta horregatik ez daukat kezarik, baina muntaia hutsa da. Berez, ez dute ezer onik ateratzen, batak beste laguntzen badu, ez da agertzen. Txarra, aldiz, guztia.

### Eta etxera itzultzean nolakoa da aldaketa?

Etorri nintzean jende gehienak ez zekien oraindik programan parte hatu nuela. Baina emititzen hasi bezain laster hasi dira

umeak argazkiak eta autografoak eskatzen. Dena den, kontratua sinatu nuen esan zidaten hau behin-behinekoa dela. Berehala ahaztuko naute. Birtartean, jendea zoriontsu egin ahal badut, ezin hobeto.





## KOMUNIKATUZ ERALDATU

Herriak euren komunikazioaren jabe

### JARDUNALDIAK

HERRI INDIGENAK – HERRI-KOMUNIKABIDEAK – KOMUNIKAZIOA ERALDAKETA SOZIALERAKO


Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin

## URDUÑA


ARRATSALDEKO 19:00tan - ALONDEGIAN:

- Maiatzak 18 asteazkena:** Dokumental emanaldia: “Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak” (Euskaraz) + Solasaldia gonbidatu komunikatzaile indigenekin
- Maiatzak 20 ostirala:** Berbaldia Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa ozialerako (Euskara - Gaztelania).
- Maiatzak 23 astelehena:** Herri Indigenek egindako dokumentalak: “MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE” (39min) eta “SOY COLLA” (15min) + Gonbidatuekin solasaldia (Gaztelania)

Antolatzaileak:



MUGARIK GABE  
O.N.D./G.G.K.E.  
Declarada de Utilidad Pública  
Herri-Organizazioa Aldekoa



Babeslea:



GARAPENERAKO LANBIDEAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACION PARA  
EL DESARROLLO

Informazio gehiago:

- [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)
- [@mugarikgabe](https://twitter.com/mugarikgabe)
- [Mugarik Gabe](https://www.facebook.com/mugarikgabe)
- [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)
- [@aiaraldea](https://twitter.com/aiaraldea)
- [Aiaraldea](https://www.facebook.com/Aiaraldea)

